



Baztango XVIII.
Mendi Itzulia
Maiatzaren 29an → 49



Bestak

Urdazubi eta Irurita → 11-18

ETXALAR → 20

Gasna eta artisau feria
ekainaren 5ean

OIZ → 29

Lehenbiziko aldiz Laxoa
Eguna maiatzaren 28an

GOIZUETA → 37

II. BTT zeharkaldia
ekainaren 5ean


BAZTAN → 41

Zerbitzu anitzetako
langileentzako probak

Euskal Herriko Rugby Txapelketa sara 2011

Lehenbiziko aldiz,
Euskal Herriko errugbi
txapelketa jokatu da
larunbatean Saran.
Herrialde bakoitzetik
talde bana eta talde
antolatzailea ariko dira.

→ 48



Baztanen, Beran eta Etxalarren
alkatetza erabaki gabe gelditu da
talde bakar batek ere ez baitu
gehiengo osorik lortu.
Parlamentuko emaitzetan Bildu
nagusitu da ia herri guztietan,
Eratsunen, Urdazubin, Urrozen eta
Zugarramurdin izan ezik.

ERREPORTAJEA → 3-5

Lanerako ordua da

Ekainaren 11n hartuko dute kargua alkate-zinegotziek

Haur eta gaztetxoendako udalekuetan
izena emateko epeak zabalik daude
Baztan, Bortzirriak, Leitza eta Sunbillan

Udako oporretan aisialdiaz gozatzeko aukera izan
dute neska-mutikoeak aurten ere. Baztanen
ekainaren 6an irekiko da udako jostaldietan izena
emateko epea, eta gainerakoetan dagoeneko za-
balik dago.



ZOKKETAK → 35



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58 telefonora

BERA LESAKA AGENDA EKAINA 2011

1 **SARI BANAKETA**
Txoko Txiki ipuin
eta ilustrazio lehiaketa
LESAKA - Tantarumairu Ikastola - 11:30
Antolatzailea: Tantarumairu Ikastola eta Gurea Elkartea
Laguntzailea: Lesakako Udala

10 **BIDE HEZKUNTZA**
LESAKA - Irain Ikastetxean - Goizean zehar
Antolatzailea: Irain Ikastetxea | Laguntzailea: Lesakako Udala

2 **ANTZERKIA "Herodoto"**
E. MAILAKO IKASLEAK
LESAKA - Irain Ikastetxeko gimnasioan - 11:30
Antolatzailea: Irain Ikastetxeko ikasleak | Laguntzailea: Lesakako Udala

10 **LESAKAKO SOINULARIAK KONTZERTUA**
LESAKA - Aihondigan - 20:00
Antolatzailea: Lesakako Soinulariak | Laguntzailea: Lesakako Udala

3 **ANTZERKIA "Herodoto"**
E. MAILAKO IKASLEAK
LESAKA - Irain Ikastetxeko gimnasioan - 20:30
Antolatzailea: Irain Ikastetxeko ikasleak | Laguntzailea: Lesakako Udala

17 **"PIPERGORRI" ALDIZKARIA ARGITARATU**
LESAKA - Tantarumairu Ikastola
Antolatzailea: Tantarumairu Ikastola eta Gurea Elkartea
Laguntzailea: Lesakako Udala

17-19 **ALTZATEKO BESTAK**
BERA

21 **IKASTURTE BUKAERAKO JAIA**
Herri Kirolak, jokoak, txistorrada, sari banaketa...
LESAKA - Irain Ikastetxean - 09:00-13:00
Antolatzailea: Irain Gurea Elkartea
Laguntzailea: Lesakako Udala

8 **IGERILEKUAREN IREKIERA**
BERA - 11:00 - 20:00 astelehenetik igandera
Abonamendua egiteko: Kirodegian ekainaren 1etik 7ra
Igerilekuan ekainaren 8tik aitzinera - Abonamendua egitera jasan aitzinetik
kuota oraindik behariko da eta egiztagiria eraman
Udako kirol jarduerak: lehor eta urretako jardueretan larri erabateko
kirodegian ekainaren 8tik 24ra

23 **SAN JUAN BEZPERA**
LESAKA - Komentuan - 19:00
Antolatzailea: Lesakako Euskara Batzordea | Laguntzailea: Lesakako Udala

25 **IKASTURTE BUKAERAKO BESTA**
LESAKA - Tantarumairu Ikastola - 11:30
Antolatzailea: Tantarumairu Ikastola eta Gurea Elkartea
Laguntzailea: Lesakako Udala

9 **UDAKO KONTZERTUA**
BERA - Kultur Etxean - 17:30
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola
Laguntzailea: Berako Kultur Batzordea

25 **LA MIGUEL INDURAIN
NAZIDARTEKO MARTXA
ZIKLOTURISTA**
BERA
Argibide gehiago: www.tenduren.com
Antolatzailea: Club Ciclista Berastena

26 **BESTA BERRI
EGUNA**
LESAKA

BERA

LESAKA

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonon
www.berakoudala.net | www.lesaka.net

ANTZERKI EMANALDIA BERAN

Eguna: maiatzak 28 | **Ordua:** 22:00 | **Tokia:** Berako Kultur Etxea
Sarrerak: 6€ (egun berean 21:30etik aitzinera salgai)

ERRAUTSAK

(Artedrama,
Le Petit Theatre de Pain &
Dejabu Panpin Laborategia)

UDAL HAUTESKUNDEAK 2011 → EMAITZAK HERRIZ HERRI

Herriz herriko emaitzak eta boto gehien bildu dituzten alkategaien argazkiak

Ekainaren 11n hartuko dute kargua alkate-zinegotzi berriek | Herriren batean inpugnazio-rik balego, kasu horretan uztailaren 1ean hartuko lukete kargua, inpugnazioa argitu ondotik

ZERRENDA IREKIAK DITUZTEN HERRIAK | 250 biztanle baino guttiagorekin, alkatea eta 4 zinegotzi

ERATSUN	Latargi (5 hautetsi)	Bozkatuena: Francisco Mari RETEGI
EZKURRA	Idoia (5 hautetsi)	Bozkatuena: Julian GOGORZA
OIZ	Oizko Alkartasuna (5 hautetsi)	Bozkatuena: Alberto SAN MIGUEL

SALDIAS	Independienteak (5 hautetsi)	Bozkatuena: Jacinto DOMINGUEZ
ZUGARRAMURDI	Akelarre (5 hautetsi)	Bozkatuena: Evaristo MENTABERRI

ARANTZA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 547		
Jaime ITURRIA (Bildu)		
	2007	2011
Bildu		7 330 boto
A.Aitzinera	4 276 boto	
EAJ-EA	3 204 boto	
Baliogab.	12 boto	52 boto
Zuriak	9 boto	15 boto

ARESO		
7 HAUTETSI Zentsoa: 237		
Ur ALGUERO (Areso Eraikiz)		
	2007	2011
A. Eraikiz	5 157 boto	7 147 boto
CDN	2 61 boto	
Baliogab.	4 boto	12 boto
Zuriak	1 boto	13 boto

BAZTAN		
13 HAUTETSI Zentsoa: 6.286		
Begoña SANZBERRO (UPN)		
	2007	2011
Bildu		5 1.487 boto
Ezkerra		2 817 boto
NaBai	7 1931 boto	1 388 boto
PSOE		0 196 boto
UPN	6 1785 boto	5 1.524 boto
Baliogab.	709 boto	42 boto
Zuriak	151 boto	81 boto

BERA		
11 HAUTETSI Zentsoa: 2.898		
Jose Mari TELLETXEA (Bildu)		
	2007	2011
Aralar	2 314 boto	4 552 boto
Bildu		4 612 boto
EAJ-PNV	2 366 boto	2 313 boto
UPN		1 172 boto
PPN		0 127 boto
Baliogab.	75 boto	44 boto
Zuriak	133 boto	59 boto

BERTIZARANA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 506		
Antonio ERREGERENA (Bildu)		
	2007	2011
Bildu		4 203 boto
B.Elkartald	4 203 boto	3 137 boto
B.Bai	2 102 boto	
EAE-ANV	1 70 boto	
Baliogab.	12 boto	16 boto
Zuriak	10 boto	10 boto

DONEZTEBE		
9 HAUTETSI Zentsoa: 1.187		
Miguel SAN MIGUEL (EA)		
	2007	2011
EA	9 594 boto	8 596 boto
PPN		1 107 boto
Baliogab.	128 boto	59 boto
Zuriak	108 boto	50 boto

ETXALAR		
7 HAUTETSI Zentsoa: 640		
Miguel Mari IRIGOIEN (Herri Taldea)		
	2007	2011
E.Aitzinera		1 98 boto
Herri Taldea	4 240 boto	3 205 boto
Independi.		3 160 boto
UPN		0 46 boto
PPN		0 5 boto
Baliogab.	7 boto	1 boto
Zuriak	18 boto	5 boto

GOIZUETA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 666		
Pablo MIRANDA (Bildu)		
	2007	2011
Bildu		7 448 boto
EAE-ANV	4 292 boto	
Elkartasun	3 288 boto	
Baliogab.	3 boto	28 boto
Zuriak	4 boto	16 boto

IGANTZI		
7 HAUTETSI Zentsoa: 506		
M ^a Lourdes IBARLUZEA (Herri Taldea)		
	2007	2011
Herri Taldea		7 322 boto
EAJ-PNV	4 184 boto	
EA	3 120 boto	
Baliogab.	41 boto	25 boto
Zuriak	35 boto	20 boto

LEITZA		
11 HAUTETSI Zentsoa: 2.412		
Oier EIZMENDI (Bildu)		
	2007	2011
Bildu		9 1.283 boto
DNE/NEE		1 188 boto
Itzaira		0 0 boto
UPN	2 348 boto	1 130 boto
Baliogab.	41 boto	36 boto
Zuriak	37 boto	84 boto

LESAKA		
11 HAUTETSI Zentsoa: 2.254		
Pello ETXABIDE (Bildu)		
	2007	2011
Bildu		6 731 boto
EAJ/PNV	5 658 boto	5 670 boto
PSN		0 77 boto
UPN		0 46 boto
Baliogab.	317 boto	45 boto
Zuriak	24 boto	43 boto

SUNBILLA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 595		
Amets INDA (Bildu)		
	2007	2011
Bildu		7 294 boto
EA	6 298 boto	
Sunbildar.	1 93 boto	
Baliogab.	87 boto	28 boto
Zuriak	7 boto	30 boto


URDAZUBI		
7 HAUTETSI Zentsoa: 312		
Santiago VILLARES (Azkar)		
	2007	2011
Azkar	4 140 boto	4 154 boto
Urxume	3 126 boto	3 113 boto
Baliogab.	6 boto	3 boto
Zuriak	9 boto	11 boto

ZUBIETA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 249		
Patxiku MITXELENA (Herriko Taldea)		
	2007	2011
Eutsi		2 60 boto
HerrikoTald		5 127 boto
Baliogab.		7 boto
Zuriak		5 boto

Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Elgorriaga, Ituren eta Urrozen hemendik 6 hilabetetara izanen dute udal hauteskundeak berriz egiteko deialdia.

Legasa, Narbarte eta Oieregiko kontzejuetan ere hautagairik aurkeztu ez denez, bigarren deialdi bat izanen dute.

NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK | 2011/05/22



NAFARROA				
	2011	%	2007	%
Zentsoa	468.216	100	458.286	100
Partehartzea	326.561	69,7	345.154	75,3
Baliokoak	322.522	98,8	327.074	94,8
Baliogabeak	4.039	1,2	18.080	5,2
Zuriak	8.151	2,5	4.568	1,4
UPN	111.278	34,5	138.021	42,2
PSN-PSOE	51.054	15,9	73.134	22,4
Na Bai 2011	49.768	15,4	77.646	23,7
Bildu	42.839	13,3		
PPN	23.449	7,3		
Ezkerra	18.409	5,7	14.244	4,4
Bertzeak	17.574	5,4	18.952	5,8

• Eskualdeko emaitzei begiraturaz, Bildu izan da diferentzia handiarekin alderdirik bozkatuena, botoen %40,41 eskuratuz. Bigarren indarra Na Bai izan da, 2007an baino 4.242 boto gutiagoarekin. Hirugarrena den UPNk ere botoak galdu ditu, 1.076 eta PSNk 459 galdu ditu. Partehartzea 2007an baino 3,8 puntu tikiagoa izan da aurtan.

- UPN nagusitu da Nafarroako hauteskundeetan, 19 eserleku lortuta. Ondotik PSN izanen du Parlamentuan, 9 eserlekurekin. Na Bai 8 eserleku eskuratu ditu, Bilduk 7, PPNk 4 eta Ezkerrak 3.
- Yolanda Barcina buru duen alderdi erregionalistak bertze talderen baten babes beharko du gobernua osatzeko.
- 2007ko datuekin alderaturaz, UPN, PSN eta Na Bai 25.000na boto inguru galdu dituzte. Ezkerrak duela 4 urte IUN-NEBK lortutako emaitza 4.000 bat bototan hobetu du.

NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ESUALDEKA




BAZTAN		
UPN	1.446	32,50
Bildu	1.401	31,50
Na Bai 2011	900	20,20
PSN-PSOE	229	5,10
PPN	159	3,60
Ezkerra	124	2,80
Bertzeak	63	1,30
CDN	39	0,90
Zentsoa	6.260	100
Partehartzea	4.501	71,90
Baliokoak	4.450	98,87
Baliogabeak	51	1,10
Zuriak	89	2,00



BERTIZARANA MALERREKA		
Bildu	1.151	41,37
Na Bai 2011	736	26,46
UPN	467	16,79
PPN	161	5,79
PSN-PSOE	128	4,60
Ezkerra	50	1,80
Bertzeak	48	1,73
CDN	30	1,08
Zentsoa	4.360	100
Partehartzea	2.827	64,84
Baliokoak	2.782	98,41
Baliogabeak	36	1,27
Zuriak	43	1,52



BORTZIRIAK		
Bildu	1.774	41,98
Na Bai 2011	1.394	32,99
UPN	597	14,13
PSN-PSOE	278	6,58
PPN	243	5,75
Ezkerra	109	2,58
Bertzeak	75	1,77
CDN	35	0,83
Zentsoa	6.812	100
Partehartzea	4.724	69,35
Baliokoak	4.627	97,95
Baliogabeak	86	1,82
Zuriak	122	2,58




LEITZALDEA		
Bildu	1.596	66,39
Na Bai 2011	372	15,47
Bertzeak	126	5,24
PSN-PSOE	43	1,79
PPN	36	1,50
UPN	31	1,29
Ezkerra	22	0,92
CDN	18	0,75
Zentsoa	3.415	100
Partehartzea	2.432	71,22
Baliokoak	2.404	98,85
Baliogabeak	28	1,15
Zuriak	38	1,56



URDAIZUBI ZUGARRAMURDI		
Na Bai 2011	123	33,61
UPN	118	32,24
Bildu	64	17,49
PPN	22	6,01
PSN-PSOE	13	3,55
CDN	7	1,91
Ezkerra	6	1,64
Bertzeak	3	0,82
Zentsoa	470	100
Partehartzea	380	80,85
Baliokoak	366	96,32
Baliogabeak	11	2,89
Zuriak	13	3,42

HAUTESKUNDEAK 2011/05/22 → NAFARROAKO PARLAMENTUA

Bildu izan da alderdirik bozkatuena botoen %40,41ekin



Gainerako alderdi gehienek 2007an baino emaitza okerragoak eskuratu dituzte

	Zentsoa	Partehartz.	UPN		Na Bai		PSN-PSOE		Bildu		PPN		Ezkerra		CDN		Bertzeak					
			Baliogabeak		Zuriak		UPN		NaBai 2011		PSN-PSOE		Bildu		PPN		Ezkerra		CDN		Bertzeak	
			2011	2007	2011	2007	2011	2007	2011	2007	2011	2007	2011	2007	2011	2007	2011	2007	2011	2007		
ARANO	114	48	0	16	0	0	2	3	13	26	0	1	29	0	3	0	0	4	1	0		
ARANTZA	546	404	12	143	4	10	25	63	76	239	12	21	241	24	5	0	0	15	5	2		
ARESO	237	169	3	61	6	3	20	14	32	77	1	11	86	8	1	4	9	45	3	0		
BAZTAN	6260	4501	51	540	89	66	1446	1557	900	2016	229	264	1401	159	124	41	39	97	63	25		
BEINTZA-LABAI.	220	120	0	1	4	1	31	52	23	55	3	7	38	14	2	1	3	5	2	1		
BERA	2884	1841	37	352	53	17	253	351	576	919	112	200	601	114	42	41	15	46	38	27		
BERTIZARANA	503	360	5	72	7	5	63	92	78	166	22	36	150	20	4	10	4	8	7	4		
DONAMARIA	337	215	2	21	0	2	24	51	80	122	7	12	82	17	0	2	1	13	2	0		
DONEZTEBE	1176	818	15	42	9	16	176	229	204	398	53	89	256	53	27	25	9	39	16	5		
ELGORRIAGA	173	107	0	23	2	0	25	28	29	84	2	5	42	3	1	1	3	14	0	1		
ERATSUN	155	92	1	1	0	0	12	19	34	55	0	4	27	6	5	2	3	4	4	0		
ETXALAR	634	517	12	105	23	14	95	89	157	249	20	15	172	23	11	4	1	11	3	0		
EZKURRA	160	86	0	11	3	1	22	16	11	46	2	5	38	7	2	7	0	3	1	3		
GOIZUETA	665	496	11	284	10	8	9	18	57	249	1	10	396	6	2	4	1	11	3	2		
IGANTZI	506	372	3	27	7	11	48	64	90	225	25	37	152	21	12	6	5	8	9	3		
ITUREN	410	242	2	57	1	6	20	32	77	153	8	18	128	3	2	0	0	7	1	1		
LEITZA	2399	1719	14	580	22	25	134	283	270	757	29	102	1085	22	16	24	8	36	119	15		
LESAKA	2242	1591	33	266	35	16	176	240	495	966	109	139	608	61	39	29	14	35	21	8		
OIZ	122	77	0	1	1	0	6	7	26	38	3	9	36	4	0	1	0	1	1	0		
SALDIAS	115	85	0	7	4	0	6	9	22	35	3	8	33	6	0	3	3	7	8	2		
SUNBILLA	595	355	8	65	8	14	47	68	54	301	10	18	205	16	5	5	1	8	1	1		
URDAZUBI	301	269	8	7	13	9	93	84	83	132	6	13	41	13	4	4	6	20	2	3		
URROZ	148	79	1	1	2	4	17	38	26	40	3	11	19	4	1	0	3	1	3	5		
ZUBIETA	246	191	2	39	2	1	18	13	49	84	12	9	97	8	1	0	0	1	1	2		
ZUGARRAMURDI	169	111	3	8	0	1	25	43	40	53	7	12	23	9	2	1	1	6	1	1		
Denetara	21317	14664	212	2730	305	230	2387	3463	3243	7485	597	1056	5669	577	279	215	123	445	315	110		

Oharrak (2007ko datuei buruz):

UPN: 2007 hauteskundeetan UPN eta PP elkarrekin aurkeztu ziren. NaBai: 2007 hauteskundeetan Aralar, Batzarre, EA, EAJ/PNV eta Independentiek elkarrekin aurkeztu ziren. Izquierda/Ezkerra: 2007 hauteskundeetan Nafarroako IUN-NEBk eskuratutako datuak ageri dira.



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

FUTPOLitika

Norgehiagoken aitzinetik, «Federazioak» bertako talde bat zigortu nahi bazuen ere, hondarreen zuzenbidez baimena eman eta sailkapenean harroaldi kozkorra ekarri du. Ea kiniela zeinek asmatu duen! Batzuek penaltia ezkertera, bertzeek eskuinera, zenbaitek erdira, Panenka erara, eta hainbatek baloia espres kanpora bota dute. Talde batzuek harrobiko jokalaria gazte ezezagunak eta beterano ezagunak zelairatu dituzte, bertze batzuek, aldiz, kanpoko fitxaketan alde egin dute apustu. Zure taldeak irabazi du? Kontrarioek zenbat gol sartu dituzte? Eta

«Kamisetaren kolorea kolore, berdegunean joko garbia, kiroltasuna eta errespetua erakusteko izan dadila»

«maletinik», izan ote da «maletin» famaturik? Eta Nafarroako selekzioak joko hobirik ekarriko ote digu? Halaxe da bai, finitu berri da azken jardunaldia, eta jada badakizkigu emaitzak. Hemendik aitzinera bertze liga bat hasiko da, eta aski zaila izanda ere, kamisetaren kolorea kolore, berdegunean joko garbia, kiroltasuna eta errespetua erakusteko izan dadila...

Ezpala

Joxema IRIGOIEN

Lapurreta aldia

Azkeneko hilabeteotan Elizondon, Donezteben, Zigan, Leitza... kasu ugari jakin dira. Epe laburrean bizpahiru aldiz sartu dira horietako batzuetan, salgaiak eta dirua eramanez. Poliziaren presentzia areagotzea eskatzen du batek baino gehiagok, konponbidea ekarriko duelakoan. Eta bitartean, marmari batean, susmagarrien zerrenda: ijitoak, erru maniarra eta... langabeak ere bai.

Nabarmentzekoak



Agustin ANT XORDOKI
Igantzioko saskigilea

96 urte zituela hil zen Igantzioko Bentatako eskulangile ezaguna. Aspaldixko erretiratua bazen ere, saskigintza kanpoan gehien erakutsi duen eskulangilea izan zen.



Iñaki PERURENA
Leitzako harrijasotzailea

«Euskararen eta euskal kulturaren alde egin-dako lanagatik» Manuel Irujo Saria eman diote Iñaki Perurena Leitzako harri-jasotzaileari. Ekainaren 4an hartuko du saria Lizarran.



Pedro URRUTIA
Saldiasoko alkate ohia

Zazpi agintaldi egin ditu Saldiasoko alkatetzan Pedro Urrutiak. 1971tik 1979ra, 1983tik 1995era eta 1999tik 2011ra egon da alkate. Aldi honetan, ordea, ez da udal huteskudeetara aurkeztu.

Atzera begira → 1997.05.22 / TTIPI-TTAPA 206. zbk



Leitzako Karrape Irratiaren hastapenetaz

«Karrape Irratia, parte hartu nahi duen edonorentzako irekia dago». Halaxe zioen duela 14 urteko lan taldeak TTIPI-TTAPAK egindako elkarrizketan. Unai Zabaleta (arduraduna eta teknikoa) eta Amaia Astibia eta Kontxi Zozaia esatarriak aritzen ziren orduan, Leitzako euskaltegiko gainerako irakasleen laguntzarekin. «Beti bada zer hobetzerik, ez gara profesionalak eta askotan harrapatuak gelditzen zara: hitzetan motz, hanka sartzen duzu... mikrofonoak ere zerbait inposatzen du», zioten.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruña eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxel, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellexea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tيرادa 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Pentsamolde desberdinak

Pello APEZETXEA

Aniztasuna da munduko izakien ezaugarri bat. Urean, airean edo lurrian diren guztiak desberdinak dira, bizigabeak izan edo bizidunak. Iturri bateko eta bertzeko urak ez dira zapo-berdinekoak, ezta landa batean eta bertzean sortutako patatak. Nork kontatu udaberriak ekar-zen dituen lore moldeak? Zenbat txori kanta! Eta itsasoko arraiak.

Eta jendeak. Kolore, hizkuntza, kultura, erlijio, adin anitzekoak. Milaka hizkuntza, milaka erlijio. Eta bizitari buruz ikuspegi ezberdina dutenak: emakumeak eta gizasemeak, haurrak, gazteak eta adinakoak. Pentsamolde desberdinak urrungoen artean, baina baita hurbilekoen artean ere. Anitz izateak, ezberdin izateak gure ingurua eta mundua dena politago eta aberatsago bihurtzen du. Eta gozamen aukerak eskaintzen dizkigu. Bizimodu egokia gauzatzeko gure ahalmena handitu ere bai.

Baina pentsamolde ezberdinak bizimodua zaildu ere egiten du, elkar ezin ulertua, ezin eramana, solas batean, izaera eta pentsamolde ezberdinek sufrimendua ere dakarkigute. Izaera eta pentsamoldeak erran dut. Pentsamoldeak ikuspegia eskaintzen digu, baina ez pentsamoldeak soilik. Izaeraren barrenean sentimendua ere bada. Al, eta honek ere badu eragina gure ikuspegian, eta ez ttikia. Ez dugu erabat al-

de batera uzten ahal gure lagunak edo gure senideak zer pentsatzen duen, zer sentitzen duen. Horiek nori botoa eman, gurea ere bulkatzen dute aunitzetan bide beretik. Horien norbaitenganako haserraldiak norbait horrenganako gure jarrera ere aldatzen du, behin baino gehiagotan. Ez badit batetik lagundu, edota mindu banau, nitaz gaizki mintzatu edo kalteren bat ekarriz geroz, harenganako nire pentsamoldea ez da lehengoa izanen, nire sentimendua ere ez baita bera. Eta horren denaren ondorioz kezkatua eta nahigabetua gelditzen naiz. Nekea eta sufrikarioa. Aniztasunak atseginaldiak ugaritzen dizkidan bezala, zenbait zailtasun garaitzen laguntzen didan bezala, bertze hainbatetan bizimodua gogorrago ere egiten dit.

«Anitz izateak, ezberdin izateak gure ingurua eta mundua dena politago eta aberatsago bihurtzen du. Eta gozamen aukerak eskaintzen dizkigu. Bizimodu egokia gauzatzeko gure ahalmena handitu ere bai. Baina pentsamolde ezberdinak bizimodua zaildu ere egiten du, elkar ezin ulertua, solas batean, sufrimendua ere dakarkigu»

Txanponak bi aurpegi bakarrik ote?

Joseba URKIOLA

Bi aurpegi bakarrik ote ditu txanponak? Ongiaren eta gaizkiaren artean ez ote dago erdibidekorik? Ez da erraza galdera hauei erantzuna bilatzea. Ezinezkoa ia. Azken egun eta asteetako notiziak entzun eta irakurrita, askori sortu zaie gogoa patrikatik txanpona atera eta aireratzeko.

Osama Bin Ladenen agurrak zalaparta handia sortu du. Munduko hainbat txokok eztanda egin dute. Washingtonen gustora, pozik eta arranditsu daude. 2001ko irailaren 11ko gertaeren mendekua iritsi dela esan du Etxe Zuriak. Beti geratuko da zalantza Bin Ladenek nola esan zuen agur, baina Barack Obama 2009ko Bakearen Nobel sariduna harro da. Aspaldiko partez irribarrea berreskuratu du eta orain aste batzuetako datuekin alderatuta, gehiago maite eta gozosten dute estatubatuarrek. Al Kaidako agintariaren heriotzak berniza eman dio, krisi ekonomikoak eta gizarte arazo mardulek belztua zeukaten Etxe Zuria.

Ongia eta gaizkia nabarmen banatuta daude kontakizun honetan. Disneyren pelikula moralista bat dirudi. Egoki dagoena eta ez dagoena, ondo bereiztuta. Dena den zalantza laino asko daude ustez garbia den zeruan. 2.800 pertsona hil ziren New Yorkeko dorre bikien triskantzan. George W. Bushen orduko gobernuak sustatu eta Blairrek eta Aznarrek bultzatuta, Irak eurenganatzeari adostu zuten. Baita Afganistan kolonizatu eta itxura aldatzea ere. Ez al da hori nahikoa mendeku? Gainera kuriozoso da oso afera hau guztia. Ustez AEBetan daude puntako zuzenbidearen inguruko unibertsitateak eta justizia gizon garrantzitsuenak. Osamarekin amaitzeko, lege liburu guztiak ireki gabe utzi dituzte. Ez epaiketa, ez tribunal eta ez ezer. Aurkitu, exekutatu eta uretara. Horixe ustezko herrialde demokratiko eta aurreratuenaren jokabidea. Orain mende batzuk bezala, baina 2.0 bertsioz makillatua.

Ez dahor amaitzen bitxikeria sorta. George W. Bush orain urte batzuk behin eta berriz esaten egoten zen Al Kaida eta Bin Ladenekin amaitu behar zuela munduak. Hori zen Texasako arrantxoia gotorleku zeukan filosofo antzuarren nahi eta desio bakarra. Ba begira nola aldatu diren gauzak bi urtean. Azken egunotan albistetik ihesi ibili da, eta Obamaren gobernuak Zero Gunean elkarretaratzea egin zuenean, ez zen azaldu. Honek bi ondoriotara garamatza; Al Kaidak ez zuen hainbeste kezkatzen edo iruzurraren behiari esne gehiegi atera eta enpo egina dago.

Ez dakit txanponak bi alde bakarrik ote dituen, oraintxe erori da eta zutik geratu da. Hausnarketarako bidea ematen du. Gizarteari Osamarekin nola amaitu duten ez baitzaio garbi esan. Interes gehiago zeukaten Ingalaterrako boda eskaintzen edo Joan Paulo II.a Aita Santua zenaren beatifikazio ekitaldia plazaratzen. Gustora izango dira Ametsen Herrialdeko historia kontalariak. 2011ko maiatz hasieran, lau egunetan, printze-pintzesaren ezkontza, Aita Santu bidaiariaren beatifikatzea eta XX. mendearen azken haspereneko deabruaren infernuratzea albiste izan baitira. Ona eta gaizkia edeki daude bereiztuta. Eta hemen bai, ez dago erdibiderik.

Irakurleak mintzo

Doneztebe
Futbol Taldeari

Xabier MAIA ETXEBERRIA

Eta bide batez, klubaren inguruan jarduten duzuen guzietan. Lerro hauen bitartez nire esker ona eta miresmena helarazi nahi dizuet urte hauetan nerekin izandako jarrera eta eman-dako babesagatik. Agur afarian barruan nuen korapiloak ez zidanez pentsatzen nuena era egokian adierazten utzi, publikoki erratera behartuta nago.

Kirol munduak berarekin dituen kolpe gogor horietako bat jaso ondoren, Donezteben besoak zabalik hartu ninduzuen eta ihesbide soil bat izan behar zenak bertzelako bilakera izan du azken hiru urte hauetan. Hasiberriak zineten garai haietan, proiektu polit baten zurrinbilan sartu ninduzuen, horrek berarekin dakartzan alde on eta txarrekin. Gauza batzuk ongi egingo ziren, bertzeak ez horrenbertze (hasiberriaren nork ez du bere akatsetatik ikasi), baina ez dago ukatzerik amets bat izaten hasi zena, pixkanaka gogo ela ilusio haundiarekin errealtatea bihurtzen hasi zela. Gauzak patxadaz eta zentzu haundiz egitearen ordaina. Gaztetxoetatik hasi eta nagusiekin bukatu bitartean, dena izan dira hitz onak, babesa etengabea, aunitzetan merezi ez arren, eta hori, du-darik gabe, hiru puntu

baino askoz gehiago dira pertsona batendako. Eredugarria izan da zuzen jarrera momentu txarretan batik bat, horietan ikusten baita benetan nolakoa den bat. Eta holakoetan, kirol arloa bigarren maila batean gelditzen da inolako zalantzarik gabe. Hori baino askoz gehiago eman didazue.

Segi horrela, oraindik bide luzea dago aitzinetik, baino modu horretan lan egiten jarraitzen baduzue, ongi egindakoaren fruituak laister jasoko dituzue. Bien bitartean, jarraitzaile bat gehiago irabazi duzue, eta ziur ez dela azkena izango. Eta ez izan du-darik, nagoen tokian nagoela, zuekin ikasitakoa ezin izango dutela ahaztu. Laister arte!

Josu Goia
Alkate ohiari
erantzunaXabier M^a Irazoki Agesta
Jose Juan Lanz Apeztegia

Pasa den apirilaren 26an, Diario de Noticiasen agertu zen *Sobre-saliente para el Ayuntamiento de Bera* idatzia-ri erantzuten diogu.

Hasi aurretik bi gauza argitu nahi ditugu:

1. Ez dakigu zertaz ari den, Udal-Korporazioaren kontrako zirikatzeko kanpaina aipatzen duenean.
2. Berarekin ados gauden, pertsona guztiak hautatuak izateko eskubideen jabe izan behar harko luketelakoan.



Bota bertsoa

Iñigo OLAETXEA

Democracia real ya

Milaka lagun elkartu dira (beraz ez da hain bitxia) hauteskondeen aurrean eman nahian beren iritzia demokraziak (benetakoak) bidea dauka itxia tortura, hitzak, legeak, drogak, euroa, langabezia... Nork inposatu aukeratzea omen da demokrazia....

Bertso pare hau egina dago emaitzak jakin baino lehen baina badakit garaile gisa denak daudela «ondoren» nik nere bozka emanagatik (eztakit ongi dagoen) demokrazia hontan sinesmen handia ez izan arren, ea hurrengo 4 urte hauetan hau hobera aldatzen den....

Bere idatzian dio Udalak, Josu Irazoki buru duela, hainbat «lorpen» eskuratu dituela Bera-ko herriarentzat. Besteen artean Zalain industriaguneko urbanizazioaren asfaltatzea.

Horreri buruz diogu: 1. Auzoko bizilagun gehienak Zalain auzoan egin den bidegabeke-riaren kontra gaudela (begiratu espedienteak). Errekurtsoak jarriak ditugu Auzitegian.

2. Aipatzen dituen Zalaingo industriaguneko urbanizazio lanak ez ditu Udalak egin, poligonoa eraiki duen erakunde sustatzaileak baizik, noski, gero pabilioiak saldu ahal izateko.

Alkate ohiari galdetzen diogu:

- Alkatearen lorpena al da industriagunearen asfaltatzea, auzoko bidea eta berdegune bat suntsituz (biak etxebizitzak eta industriak beretzeko eta honen eragina ttikiagotzeko jarriak zeudenak)?

- Udalaren lorpen bat al da C.I.2 lurzorua zuzentzen ez sailkatzea? (horrela Udalak

40.000.000 pezeta eskuratzeari uko eginez). - Lorpen bat al da Planak agintzen duen gainetik industriarako aprobetxamendu bat ematea?

- Berako herriarentzat lorpen bat al da zoru publikoaren gainean (berdegunea) obra eta jarduerarako baimenak ematea, gasolindegientzat eta industri nabearentzat?

- Lorpen bat al da auzorako bide publikoa desagertaraztea, bizilagunoi poligonoko barnekale batetik pasa araziz? (desagertutako bidea, gainera, ZESIO bat zen, Rotec empresako Xehetasun Azterlanaren arabera. 2001ekoa).

Badirudi alkate ohiarentzat benetako lorpenak direla.

Nolabaiteko koherentzia baduela aitortu behar harko diogu, zeren, bera Alkate izan zen urteetan (1999-2003) Zalain auzoak (bizitegi-gunea) galerak izan zituen industriagunearikiko. Hirigintza kontuan, irregulartasunak izan ziren urte haietan auzoan. Or-

duan ez genituen salatu (haien berririk ez genuelako eta orduko Udal- Korporazioaren kudeaketaz fidatzen ginelako). Gure akatsa izan zen.

Josu Goiak, bere idatzian, bestean gainetik jartzen dela ematen du, eta etikaz eta gizalageaz ari da, eta besteei burua edo adimena freskatu nahi digu. Guri min egitea lortu du.

Benetan uste dugu, propagandako idatzi horretan egiten duen bezala, beraien buruak gehiegi nabarmendu nahi izateak ez direla kome-nigarriak herriarren arteko elkarbizitza normalizatu baterako.

Herri Administrazioan, kargu hautatu bezala lan egin nahi duenak ez luke hainbesteko protagonismoa bilatu behar. Azken finean herri-kudeaketa besterik ez da. Herriar batzuk sinadurekin Udalera zuzentzen badira, herri-administrazioa doaz, ez derri-gorrez alkatearengana pertsonalki. Herriarrek beraien eskubideak defenditu behar harko lituzke-

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali behar dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

te beti, herri-administratioaren atzean edozein pertsona dagoela ere (halako talde politikoak, gaztea, esperientzia gutxikoa eta abar).

Lesakako Gazte Egunaren balorazioa

Lesakako Gazte Asanblada

Joan den apirilaren 16an gazte eguna ospatu zen Lesakan. Goiz-goizetik herriko hainbat kultur talde bildu ziren (txistulariak, bertsolariak, dantzariak, trikitilariak, akordeoilariak...). Lesakako auzoak soinu eta dantzaz animatzeko asmoz. Giro aparta egon zen goiz-goizetik, dantzak, bertsoak... eguraldiak ere lagundu zuen. Plazan bukatu zen kalejira, gosari eder batekin eta segidan Gazteztabaida egin zen. Gazteok talde-talde bilduta, gaur egungo hainbat arazo planteatu ziren: euskara, herria, etxebizitza... eta horrelako gaiekin lotuta. Eztabaiden bitartez bako-

itzak bere kezkek azaldu zituen egoerari buruz eta denen artean iritzi eta soluzio desberdinak bildu ziren. Lehenengo aldia da hau egiten dela eta eskertzekoa da jendearen parte-hartzea. Eguna ezin hobe joan zen, horregatik hau posible egin izan zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu: herriko ostaltuei, Xoterori, edari bantzaileari, BetiGazte elkarteari, Asanbladako beteranoei, bazkarian jo zuten trikitilariari, Arrano Elkarteari, Etxalarko eta Arantzako gazte asanbladei, Lesakako udaltzainei, furgoneta gorridun jabeari eta eguneko zehar antolatzen ibili ziren bertze gazte guztiei eskerrak asko.

Zuzenketa

ERREDAKZIOA

Aitzineko alean Mikel Pernaute narbartearra zela argitaratu zen, baina informazioa ez da zuzena. Pernaute Oronoz-Mugairikoa da. Barkatu eragozpenak.

11 galdera labur

Datorren lau urteetan zu alkate...

Arraroa egiten zait, orain dela hilabete esan balidate broma zela pentsatuko nuke baina behin egoera honetan egonda buruan daukadana dudan onena ematea da.

Lantaldea ere garrantzitsua izaten da. Zer moduzkoa ikusten duzu?

Ez daukat aitzakiarik, lan taldea ona da, gaztea, konfidantzakoa eta gogotsu gaude gainera.

Areson lau urte hauetan egiteko helburu bat?

Bat baino gehiago dauzkagu. Orokorean bizitzeko herri atseginagoa eta hobea lortu nahi dugu.

Zer zailtasun ikusten dituzu?

Bi zailtasun nagusi; batetik krisia dela eta, dirulaguntza eta inbertsioak lortzea zaildu egingo dela, eta bestetik, hasieran erritmoa hartu arte asko ikasi beharra daukagula. Zorionez, gogorik ez zaigu falta, ezta esperientzia duen kiderik ere.

Aresok duen gauza on eta txar bat?

Ezaugarri onena eta txarra bere txikitasuna da. Ona da denok elkar ezagutzen dugulako eta denak sentitzen garelako herriaren parte eta arduradun. Ez da hain ona be-

har diren zerbitzu asko ez daudela-ko herrian.

Denbora librean, zer atsegin duzu egitea?

Egin ditzakedanak baina gauza gehiago! Batez ere mendia, lagunekin egotea, bidaiatzea, irakurtzea...

Igotzea gustatuko litzazukeen mendi bat?

Igotzen dudan mendi bakoitzeko gero eta gehiago ohartzen naiz asko daudela igotzeko, etxetik hurbil Balerdi igotzeko daukat. Bestela, Alpeetan lau milakoren bat igo nahi nuke, baina zerranda amaitezina da.

Berriz bisitatu zenukeen leku bat?

Toki bakoitzean badaukat itzultzeko arazoirekin bat, eta aukeratu beharko banu Errusia edo India. Baina nahia go dut bisitatu gabekoetara joan.

Liburu bat?

Asko dira. Unearen arabera bat edo beste. Asko gustatu zaizkit Bertold Brecht, Sarrionandia, Amin Malouf eta Gabriel Garcia Marquez-en liburuak.

Parrandarako herri bat?

Tokia baino garrantzitsuagoa da konpainia eta aldatzea on.

Amets bat?

Nire buruari hutsik egin gabe bizitzeko gai izatea.



Ur ALGERO → Aresoko gaztea eta alkategaia

sarobe
gocotologia ostindaga

Pr. de Estegana 25 baxo 48700 Bera (Navarra) 1948 63 08 99 www.sarobe.net

Beko

FRAN AIZUA - LESAKA
Tfn: 948 637 826

Lesaka - Barantza - Mertzia - Jantzizpiak - Pellen klasak

Kallegorria

Beroko plaza 10 30770 Lesaka T. 948 927 914

Javier Manterola

Tekniko instalatzailea
Iturgintza • gasa • kalifikazioa

Tfn: 629449602 • BERA

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SQC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaga ind. - Baranta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfn: 948 631 536 - Fax: 948 631 560

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfn./Fax: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

BORTZIRIAK

AISSIALDIA → UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

Ortziral honetan bukatuko da udaleku irekietan izena emateko epea

Euskara
Mankomunitateak antolatu du
Dindaia
Fundazioarekin

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan ohi denez, Bortziritako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu ditu, Dindaia Fundazioarekin batera. Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzin

udalekuak uztailaren 4an hasiko dira eta 29ra arte- ariko dira. Lesakako kasuan, udalekuak uztailaren 11n hasiko dira eta abuztuaren 5ean bukatu. Herri guztietan, astelehenetik ortziralera izanen dira, 10:00etatik 13:00etara.

Adinaren arabera bi eskaintza izanen dira: baitetik, 3-7 urte bitartekoek udalekuetako ohiko ekintzak izanen dituzte. Bertetik, 8-12 urte bitar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Neska-mutikoak udaleku irekietan.

tekoentzat adin tarte horri egokitutako sormen tailerra izanen dituzte.

IZEN-EMATEA

Izen-ematea zabalik dago eta ortziral honetan, hilak 27, bukatuko da epea. Interesatuak Dindaia Fundaziora deitu beharko dute (948 266240, 10:00etatik

15:00etara) edo e-postaz uda@dindaia.com-era idatzi.

Ume bat apuntatuz gero, 75 euro balio du; bi anaia-arreba baldin badira, 130 euro; hiru anaia-arrebekin 165 euro. Taldea sortzeko beharrezkoa izanen da herri bakoitzean guttienez zortzi lagun apuntatzea.

Neska-mutikoei udako oporraldietan eta aisialdia bezalako eremu informal batean euskaraz gustuko dituzten ekintzak eskaintzea da udalekuen helburu nagusia. Baina horrekin batera, funtzio sozial bat ere betetzen dute, kanpoan lan egiten duten gurasoei aukera bat eskainiz.

ENGLISH SUMMERCAMPS INGELESEKO UDALEKUAK 2011



INGELESEKO UDALEKUAK

Noiz:

Uztailaren 4tik 15era
Uztailaren 18tik 29ra
Uztaila osoko aukera (4tik 29ra)
Abuztuaren 10etik 24ra

Norentzat:

HH5 - DBH 2 bitarteko haurrentzat

Izena emateko epea zabalik:
maiatzaren 16tik ekainaren 6ra
Labiaga Ikastolan - Alzate 12
T. 948 630 172

bera@ikastola.net

Gure web orrian izena emateko aukera
www.labiagaikastola.com

Ingeleseko udalekuak
BERA-n bertan



English Summer Camp

2011

BESTAK

Irurita / Urdazubi



talleres
ONENA

*Egurraren itxura,
PVC eta aluminioaren abantailekin*

- Etxeko leiho, ate eta beste kanpo itxiturak egin eta jartzen ditugu
- PVC, aluminioa RPTrekin
- Schuco Sistema



SCHÜCO
Oggi pasa bestak!

948 580 532 • Zaldubi ind. • 31730 IRURITA

sukaDeco
estudio cocina y baño



www.sukaldecoco.com IRURITA 948 580 666

OLARI
jaketxea



jaketxea aire egokituarekin hornitua
eragi pasa bestak!

Tel. 948 452 254 - IRURITA

Composites Baztan
Poliesterezko lanak



- Inpermesabilizazioak: terrazak, igerilekuak, depositoak...
- Fosa septikoak, koipe banatzaleak.
- Kamazeren errebestimenduak, furgonetak, erremoketak, traktoreak.
- Era gutxitutako molde eta piezaak egiteko ditugu, produktiorako



Tel-Faxa: 948 581 824
compositesbaztan@hotmail.com
Zaldubia Industriaidea | 31730 IRURITA



Gorka URTASUN | Iruritako erremontalaria

«Parranda bat uzten badugu buelta hartzen diogu»

Laxoatik, esku pilotara. Esku pilotatik erremontara. Desberdinak dira euren artean baina guztiek pilota dute ardatz. Gorka Urtasunek ibilbide hori egin du, pilotarena bezain boroila. Pixkanaka bere lekua egiten ari da erremonte profesionalen. 25 urteko iruritarrek 2009an egin zuen debuta erremontari profesional gisa eta dagoeneko bi txapel lortuak ditu.

Salbatore Bestak bereziak dira berarentzat: «*Norbere herriko bestak politenak izaten dira*». Baina aitortzen du «*25 urtetan ez dut bestetako bartz egunak probexerter izan*», kirol profesionala, ikasketak eta bestak uztartzea zaila izaten baita.

Herriko bestetan guztien parte hartzea gustatuko litzaioke «*zaila izaten da hori lortzea, denak izaten ditugu gure zereginak, baina guztien artean errazagoa da gauzak antolatzea*». Egun politak izaten dira, herritar guztiak elkartzen baitira egun horietan.

Argi du kirola eta parranda biak batera ez direla bateragarriak «*baina parranda bat uzten badugu buelta hartzen diogu*». Bestetan partida jarriz gero, beste erremontariok ez du izanen eta partidatik bueltan eginen du besta pixka bat.

Bi gauza dira Iruritako bestetatik gehien maite dituenak, herri bazkaria eta gazte bazkaria. «*Bietan giro berezia izaten da. Herri bazkarian gainera bertsolariak ekartzen ditugu eta arras giro polita izaten da*». Aitortzen du herriko gazte gehienak mahaiaren bueltan elkartzeak ere baduela xarma berezia.

Nahiago du frontoi laburrean jokatzea baina, besta zenbat eta luzeago hobea. Beti ere partidek uzten dioten neurrian. Erremontean bakarrik edo bikoteka jokatu nahiago duen galdetuta bakarkakoarekin geratuko litzatekeela dio, «*hori bai, besta kuadrilan*».

Baztandarren Biltzarra edo Salbatore Besten artean aukeratzeko galdetua zalantzak ditu baina lehenengoa aukeratu du. «*Zaila da bietako bat aukeratzea, baina Baztandarren Biltzarrekin geratuko nintzateke*». Baina bai Baztandarren Biltzarra eta baita herriko bestak ere frontoia bezain maite ditu.

Azkenean besta egitea da kontua, ongi pasatzea. Baztandarren Biltzarrean eta herriko bestetan frontoian bezain eroso moldatzen da Gorka Urtasun.



ti-tauerreformak

fatxadak
komunak
sukaldeak
pisuak
zaharbermitze lanak
pladurra
pintatze lanak
isolamenduak

ti-tau erreformak, s.l.u.
Bilumen Ibañeta zuzend. 3. Solairua
Tel. 948 317 081 (irurita)
Fax 948 580 648
31700 Elorrioko (P.V.)
ti-tau@hotmail.com





IRURITako bestak EGITARAUA



Ekainak 1 asteazkena BEZPERA

12:00 TXUPINAZOA Herri-buelta BAZTANGO GAITEROekin. **17:00** Nafarroako Kutxa Fundazioak antolatutako HAURRENDAKO JOKUEK. MERENDUE. **19:00** TRINKETEKO IV. ESKU PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK. **18:30-20:30** Dantzaldia JOXE ANGELeKin. **20:00** EZKIL-JOTZEA. **21:00** BAZTANZOPAK. **01:00-04:00** Dantzaldia karpan JOXE ANGELeKin.

Ekainak 2 ortzeguna SALBATORE EGUNE

09:00 Karpa garbitzea. **10:00** DIANAK. **11:00** MEZA NAGUSIA. **12:00** HERRIKO DANTZARIEN ERAKUSTALDIA. **13:00** LUNTXX HERRIKOIA. **17:30** BERTSO POTEQ. **19:30** Rantxerak TXU-TXIN IBANEZekin **22:00** MUTILDANTZAK. **00:30-04:00** Dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.



Ekainak 3 ortzilaria HAUR ETA JUBILATUEN EGUNE

09:00 Karpa garbitzea. **10:00** DIANAK BASERRIETAN. **11:30** HAURRENDAKO JOKUEK erreboteko plazan. **13:30** HAURRENDAKO BAZKARIE karpan. **14:00** JUBILATUEN BAZKARIE Olari jatetxean. GAZTE BAZKARIE Baigorriin. **15:30** HAURRENTZAKO JOKUEK. **18:00** TXOKOLATADA. **20:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. **21:30** MUTILDANTZAK. **23:00** ROCK KONZERTUE. **1:00-4:30** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Ekainak 4 laurbeta

09:30 Karpa garbitzea. Zikiroko mahai patzea. **10:00** DIANAK Txarangarekin. **11:00-13:00** HAURRENDAKO ESKULAN TALLERRA. **12:00** ARANABIAKO PALA GOMA TXAPELKETAKO FINALAK. **14:00** ZIKIRO-JATEA JULIO SOTO eta SUS-TRAI COLINA Bertsolariekin. Txaranga. **20:00** TXIMELETA taldearekin dantzaldia. **21:30** MUTILDANTZAK. **1:00-5:00** Gaupasa TXIMELETA Taldearekin.

Ekainak 5 igendia

10:30 IV.HAUR-KROSA. **11:00** MEZA NAGUSIA. **11:30** III. HERRI LASTERKETA. **12:30** Sari banaketa eta Luntxa partehartzailleendako. **18:00** DANTZA ERAKUSTALDIA. **19:30-21:30** AIERRIK taldearekin Dantzaldia. **21:30** MUTILDANTZAK.



J.P. AGERREBERE
Karrozeria • Aroztegi Metalikoa
BANATZALEA



Zaldubi ind. IRURITA • Tel.: 948 580 538 | 630 184 847

SUMINISTROS YANCI

Hurgintza eta berokuntza materialen saltaritza
Hurgintza instalazioak
Gas eta gasolio berogailuak
Erregailuen mantentze eta inbentarioak
Moble osagarria eta banurako materialak
Gazte, gasolio, ingurua eta prestatutako bihurtzeak

Zaldubia Pol. - IRURITA | Tel.: 948 58 01 09 • 948 45 24 64

ARKUPE
Gozotegia • Txokolategia

Txokolatea, urrazkoa, almendrazkoa, beltza eta xuria.
Tabletak, bonboiak, trufak,
Txokolate konfitatua.
Tartak, etxeko izozkiak, pastelak,
pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
Iruña - Tel. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

aroztegia 1890az geroztik



Arotxa

GARAJEKO ATE SEKZIONALAK



HORMANN-en banatzaile ofiziala

Miguel Azcárraga (Iruña)
T. 948 581 418 | 650 532 073
arotxa.taller@gmail.com

Montxo ostatuaren partetik besta onak pastu!

MONTXO OSTATYA



**TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA · VRDAZVBI**
Dantxarineatik 2 km.ra

Ostiralean taloak
afaltzeko

Asteazkenetik igandera
bokata hotz eta beroak



gau osoan irekia

DISKO MUSIKA





Noel EYHERAGARY | Kontrabandisten Lasterketaren antolatzaile

«Behin etortzen denak errepikatu egiten du»



Ekainaren 1etik 5era ospatuko dira Urdazubin Salbatore Bestak. Noel Eyheragaray 29 urteko gaztea da eta bera dabil Kontrabandisten Lasterketaren antolatzaile lanetan.

Aurten gainera lehen aldiz (<http://urdazubikontrabandistas.ueuo.com/>) web orria prestatu dute lasterketan parte hartu nahi dutenentzat informazioa emateko eta izen emateko aukera zabaltzeko. «Jendeari erraztasunak eman nahi dizkiogu eta lasterketa ezagutarazteko bide ona iruditu zitzaigun».

Kontrabandisten Lasterketan parte hartu nahi duen korrikalari batek «*prestaketa fisiko pixka bat eta gure mendiak gozatzeko gogoa*» bertzerik ez duela behar dio. «*Paraje zoragarriak ikusteko aukera izanen du*». Aurten ohi baino luzeagoa izanen da ekainaren 4an ospatuko den lasterketa, 15,8 kilometro izanen baititu ibilbideak, aurreko urteetan baino ia sei kilometro gehiago.

Asteazkenean hasi eta igandera arte gozatzeko asmoa du Noelek. Baina egunik bereziena hautatzekotan larunbata aukeratzen du, «*goizean kontrabandisten lasterketa izaten dugulako eta ondotik zikiro jatea*». Bazkaldoan indarrak berriro ondotik izaten den giroa da gehien gustatzen zaiona, adin guztietako jendea nahasturik ibiltzen baita herriko kalejiran. Azken urteetan gainera geroz eta jende gehiago hurbiltzen da zikiro jatera «*horrek arras berezia egiten du eguna eta baita herria ere*».

Aldaketaren bat, hobekuntzaren bat behar duten galdetuta ez du zalantzarik egiten. «*Ez nuke deus aldatuko, nere ustetan arras ongi daude horrela. Herriar guztientzat bestarekin gozatzeko aukera aunitz eta diferenteak daudela di Noelek: herri kirolak, Kontrabandisten Lasterketa, haur jokoak, txokolata, musika, bertsoak, dantza, bazkaria, afariak...*»

Jendea bertaratzeko animatzen du Noelek: «*Urtetik urtera giro hobea egoten da eta behin Urdazubiko bestetara etortzen denak errepikatu egiten du*».



Indianoa Baita
ostatua eta apartamentuak
ongi pasa Salbatoreak!
tel. 948 599 021 - Urdazubi

Faustino ETXABE tailerrak
Autoen konponketa
BESTA ON BATZUK PASA !!
☎ 948 599 038 - ZUGARRAMURDI

La KOXKA
jatebrea
ongi pasa bestak!!
948 599 042 - URDAX



Ximera
SOLUTION
Besta ederrek pasat!
Asteartetik larunbatera 9:00 - 12:00 eta 14:30 - 19:30
Benta Peio - 31712 Dantxarinea
Tel. 948 599 062



SANTIAGO VILLARES s.l.
GARRAIOAK
Luzema-pentsu eta forrajearen
SALMENTA eta ESPORTAZIOA
~
Lastoa
~
Luzema
Tel. 948 599 134 Mug. 609 415 777
Fax. 948 599 156
(URDAZUBI)
santivillares@terra.es

Gurutze Ariztia
harategia

Bestia onak pasat!

Salbatore plaza - URDAZUBI
tel. 948 599 198

IRIGOIENEA

ongi pasa bestak!!

948 599 267 • URDAZUBI

www.irigoiena.com • reservas@irigoiena.com

ANASTASIA OSTATUA

Ostatua • Janaridenda
Prentsa • Aldizkaria
Landetxea
Bestia onak pasat!

948 599 027
URDAZUBI

Iñaki Alzuyet
margoak

Pintura dekoratiboa eta industriala
Dekorazioa: estukoak, beladurak
Fatxadak • Barnealdeak • Pladurra
Lakaturia eta barnizatuak kabinan
Harri eta egurra arenadorekin
garbitzen da

ongi pasa bestak!

Itur-ttapi etxea - Landibar Auzoa
31711 URDAZUBI

Tel.: 659 862 417
pinturasalzuyet@yahoo.es

ETXELEKUA

Etxeko behi eta ardi gasna

Zugamurdiko kametera
948 599 169 - Urdazubi

IRIARTEA BENTA
Chez Peio

Ostiatua • Autozerbitzua • Larrea...

Tfona: 948 599 049 - DANTXARINEA - URDAZUBI



VENTA PEIO
Merkataritza Guneak

Ibardin **Landibar**
Dantxarinea
Arnegi **Behobia**
Agus Benta

Mikala ostatua
Lugarana jatetxea
Kupela sagardotegia

NUBA
www.la-nuba.com

www.venta-peio.com (0034) 902 210 800



Goio HUALDE | Leizeetako arduraduna

«Hondar urteotan bisitari kopurua egonkortu egin da»



1965ean zabaldu zizkieten turismoari atek eta geroztik milaka lagun pasatu dira estalagmita eta estalaktiten mundua ezagutzera. Gaur egun, urtean 30.000-35.000 bisitari hartzen dituzte. Leizeak zabaltzarekin batera, bisitari kopurua goratuz joan zen, baina azken urteotan krisi ekonomikoaren eragina ere somatu da: «**krisi garaian zaila da bisitari kopurua goratzea. Hondar lauzpabortz urteotan kopurua egonkortu egin da**», dio Goio Hualdek. Eta bisitariak hainbete izanik, euren jatorria ere ugaria. Hainbat tokitako jendea pasatu da leizeetatik, egunpasa egiteko hurbilekoak batzuk edo landetxeetan daudenak bertzeak. Baina hori sasoiaren araberkoa izaten da: «**neguan Eskual Herriko jendea izaten da eta Aste Sainduan eskualherritarrek batera, kataluniarrak eta madrildarrak hasten dira. Hondar urteotan Andaluziako jendea ere nabaritu dugu**», kontatu digu Hualdek. Maiatzean eta ekainean Herbehereetatik ere etortzen dira bisitariak eta udan, Valentziatik ere bai, baita frantziarrak ere: «**Paris, Britainia, Tolosa, Nantes...**». Eta duela bi aste aski urrundik etorritako bikote batek ere bisitatu zituen leizeak: Alaskako bi mutilek. **Inguruko jendea, ordea, «arras guti»** joaten omen da: «noiz edo noiz familia hurrekin edo inguruko norbait bikotekidearekin». Eta herriko jendea? Goioen irudiko, «herritarrek ongi ezagutzen dituzte leizeak. Baina 60-70 urteko aunitzei gertatzen zaie ttikitatik ezagutu bai, baina gerora sartu direnean modernizatua ikusi dutela eta harritu egiten dira». Berriki egin diren aldaketan artean, argiteria sistema aipa daiteke: «**Led argiak paratu dira eta horrek leizearen etorkizun naturala luzatuko du**».

Elkarlana ere landu dute. Alde batetik, aski hurbil dauden hiru leizeen arteko elkarlana dago, Sara, Zugarramurdi eta Urdazubirena. Gainera, Ainhoarekin batera Xaretaren izenean bilduak daude eta hainbete ekintza egiten dituzte elkarrekin. Bertetik, Eskual Herri mailan hortxe daude anaiartutako zortzi leizeak. Eta herriko bertze turismo eskaintzekin ere elkarlanean ari dira. Hala, udan monasterioko eta leizeetako sarreak batera erosi nahi izanez gero, prezio hobean salduko dira.

Q kalitatearen ziurtagiria ere lortu berria dute Urdazubiko leizeek eta «esfortzua» izan bada ere, «luzera begira gure mesederako» izanen delakoan dago leizeetako arduraduna.

Ikaburua Jatetxea
Urdazubiko leizeen ondoan, Etxeko janaria.
Etxeko menuak: 12,50€, Menuak 17€, Menuak 21€ eta karta.
Aitzakienetan itxia utzial eta abuztuak.
Besta hileberretan ospakizun eta etxeko beretan.
Abonuzaren erdiak utzilararen erdi itxia (topirik).

Ikaburua apartamentuak
I eta II apartamentuak (2 lagunendako lekua)
III apartamentuak (4 lagunendako lekua)
Litu osoan itxia

Barrio Leorlas - URDAZUBI/URDAX
Tel.: 948 59 92 22 - 690 75 58 75
www.ikaburua.com

ZUBIONDOA
OSTATUA
AUTOZERBITZUA
ORDIGARRIAK
Ongi pasa bestak!
T: 948 599 018 | SanTRABINEA

Angel Bengotxea
erakuntzak

Era guztietako argin lanak
Zeramika denda

Etxeak erabat bukatuak
entregatzen ditugu,
sartzeko prest

Tel. 948 599 484 URDAZUBI
www.carrelagesbengotxea.com

Ongi pasa bestak!

ARRETXEIA estankoa

Tabakodenda
Zigarro puruen cava

Dantxarinea (Urdazubi)
T. 948 599 018 | F. 948 599 015



GIZON ETA EMAKUMEENTZAKO
JOSUNE
ileapaindegia

Ongi pasa bestak!! Tel. 948 599 028 - Urdazubi



Benta • Ostata • Jatetxea
MIKELBORDA

Ongi pasa bestak!!
Tel: 0034 948 599 045
31712 DANTXARINEA

Xareta
OSTATUA



DANTXARINEA • 948 599 496

JOSENEA
ZONE AUTO



Ongi pasa bestak!!
www.josenea.es

ARMUA JATETXEA



URDAZUBI • Alkardi auzoa, Km. 3
Telefono: 948599131 • Fax: 948599131

LABEXILOA okindegia

gure okindegiaren egiten ditugu ogi gaztiak
egin gaztiaren erretzen dugu
ogia normale eta integrale erkituko duzu
Probetu gure eskal pastela



Ongi pasa bestak!
948 599 032 • URDAZUBI



URDAZUBIko bestak EGITARAUA



Ekainak 1 asteazkena

20:00 TXUPINAZOA. 21:30 Plazan AFARIA MODESTOK alaiturik.

Ekainak 2 ortzeguna

11:00 MEZA NAGUSIA. 12:00 APERITIFA txistulari eta dantzarekin. 16:00 HAURREN JOKOAK. 18:00 TXOKOLATADA. 21:30 PAELLA JATEA eta, ondotik, KIKI BORDATXOrekin dantzaldia.

Ekainak 3 ortzirala

12:00 GORRITI BERE ANIMALIEKIN. 14:00 UGARANA ELKARTEKO BAZKARIA Koxkan. 16:00 HAURREN JOKOAK. 18:00 BERTSO-TRIKI POTEOA herriko karrketan barna EGAÑA eta ZUBELDIA bertsolariekin. 20:00 SAGARDOTEGI MUGIKORRA. 23:00 Kontzertuak UFESTUEK, AIZKOR ERAUNTSIA eta ZE ESATEK! taldeen eskutik.



Ekainak 4 larunbata

10:00 KONTRABANDISTEN LASTERKETA: Ibilbidea: 15,8 km. Sariak: 500€ lehen sailkatuarentzat, (MONTXO OSTATUA SARIA), 250€ bigarren sailkatuarentzat, 150€ hirugarren sailkatuarentzat, 100€ laugarren sailkatuarentzat, 50€ bosgarren sailkatuarentzat eta tarteko muga 7,8 km-an. (IRIGOIENEA SARIA). Izena emateko epea maiatzaren 2tik 31ra izanen da. (www.urdazubikontrabandistas.ueuo.com). 14:30 ZIKIROA txarangak alaiturik eta gero herriko karrketan barna KALEJIRA. 16:00 HAURREN JOKOAK. 20:00 KEPELU JAURTIKETA. 21:00 Indar berritzeko ZINGAR JATEA eta giro onari eusteko "LA EXELENTA" mariatxiekin dantzaldia. 00:00 GABEZIN taldearekin dantzaldia.

Ekainak 5 igandea

16:00 YINKANA. 18:00 HERRI KIROLAK: Iparraldeko jokuen txapelketa, sokatira... 19:30 BOLETOEN ZOZKETA: zorte on! 20:00 PINTXOAK denentzat JOXE ANGELEN musikarekin alaiturik.



HEZIKETA → MUSIKA ETA ANTZERKIA UZTARTUZ

Kontzertu didaktikoa eskainiko du Lesakako Bandak ekainaren 5ean

Musikarekin pirata istorio bat kontatuko da

TTIPI-TTAPA

Franco Cesarini konpositore italiarraren *Tom Sawyer* lanean oinarrituz, Lesakako Bandak Bortzirietako Haur Hezkuntzakoentzako kontzertu didaktiko bat prestatu du. Musika lagun, pirata istorio bat kontatuko da Ricardo Abril eta Gaizka Sarasola kontalariekin. Musika eta antzerkia uztartuz, musika-tresnek garrantzi berezia izanen dute. Haurrei arratsalde eder bat pasarazteaz gain, helburua, musika, antzerkia eta irudimena lotzen dituen ikuskizun honekin musikaren mundurat hurbiltzea izanen da eta umeei musika tresnak erakustea.

Kontzertua Kultur Etxean izanen da ekainaren 5ean, 19:00etan.

Trialsin-a Beran

Iparaldeko txapelketaren barnelehen trialsin proba-triala bizikletan-ekainaren 5ean jokatu da Beran, Gure Txokoa Elkartek antolatuta. 10:00etan hasiko da, Toki Ona inguruan.

Athleticeko peña

Zuri-gorrien Bortzirietako jarraitzaileek duela bi urte sortu zuten peña eta taldearen inaugurazioa larunbatean, hilak 28, egingen dute. 11:00etan ongietorria egingen dute Auzoa ostatuan eta ondotik, taldearen aurkezpena eta hamaiketakoa. Herrian triki-poteoa egin eta gero, Ibardinen bazkalduko dute. Mus txapelketa ere jokatuko da eta gauean Zalain jate-txean afaria egingen da.

ELAren urteurrena

ELA sindikatuaren 100. urteurrena ospatzeko ekitaldia asteazkenean, hilak 25, egingen da sindikatuaren egoitzan. 10:30etik aitzinera artxibo historikoko materialen erakusketa izanen da, 12:00etan prentsaurrekoa eta 18:30ean lehen-go eta oraingo militanteak bildu eta luntxa eta mahaingurua.

Ricardo Baroja

Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Sailak Ricardo Baroja ikastetxea saritu du, azken bortz urteotan irakurketa bultzatzeko proiektua landu duelako. Mila euroko saria jasoko du liburutegirako materiala erosteko.



ARGAZKIA: IBAI ITURRIA

Osasunako jokalaria bitan

Osasuna Fundazioak Beran duen haurrentzako futbol eskolan, Osasunako bi jokalariren bisita izan zuten maiatzaren 4an: Coro eta Oierrena. Osasuna eta Ibai Iturriaren elkarlanari esker sortua da Osasuna Fundazioaren futbol eskola Beran eta Ibai aritzen da entrenatzaile lanetan. Elkarlan horren bidez, entrenamenduak egiteaz gain, jokalariren bisitak, Osasunako talde nagusiaren ligako partidak ikusteko gonbidapenak, sariak eta bertze hainbat aukera izaten dituzte futbol-eskolaren kideek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ingelesak San Migel zubira bisitan

1813ko irailaren 1ean borroka gogor baten lekuko izan zen San Migel zubia eta hantxe dago zubiaren defentsan hil zen Daniel Cadoux militarren omenez paratua dagoen oroitarria ere. Bada hortxe izan ziren joan den maiatzaern 14an Ingalaterratik espresuki horretara etorritako 46 lagun: San Migel zubia ikusi eta ekitaldi tiki bat egin zuten zubian eta harrera egitera herritar batzuk ere hurbildu ziren. Ingelesak bi urteren buruan itzuliko dira, borroka haren 200. urteurrenaren harira.



Fideltasun zozketa

Larun-Haizpe Merkatarien Elkartek Udaberriko bezeroen fideltasun zozketa egin du berriki. 50 merkatarik hartu dute parte eta bakoitzak 50 euroko txartelak zozketatu ditu bezeroen artean eta denen artean 200 euroko txartela ere bai. 200 euroko txartela Semper autoeskolako bezero den Xabier Azkunek irabazi du. Guztinez elkarteko bi dendetan gastatu beharko du.

ANSONEA Jabea
Eguneko menua
Menu begetarinoa
Menu makrobiotikoa
Plater kombinatuak
Bokatak • Errazioak
948 631 644
Foruen plaza, 1 • BERA

ETXALAR

ASIALDIA → ALTXATA KULTUR ELKARTEAK ANTOLATUTA

XIX. Gasna Feria ekainaren 5ean ospatuko da

Hainbat ekitaldi izanen dira egun osoan

Irune eta Itsaso

Urtero bezala ekainaren lehenbiziko igandean ospatuko da Gasna Feria eguna. Aurten ekainaren 5arekin tokatu da eta egun osoan izanen dira ekitaldiak:

- Goizean Altxatak taloen postua jarriko du eta sormen tailerra ere egonen da plazan haurrentzako.
- Elizako arkupean Etxalarko argazki erakusketan izanen da Gema Arrugaetaren eskutik.
- Baztan, Malerreka eta Bortzrietako gasnagileek 11:00 arte izanen dute epea gasnak frontoira eramateko.
- 10:00etan artisauek euren produktuak ikusgai jarriko dituzte frontoian.
- 12:30ean trikitixa eta perkusio emanaldia izanen da herriko haur eta gazte txoek eskainita.

- 13:30ean gasna lehiaketako sari banaketa eginen da.
- 14:30ean herri bazkaria frontoian izanen da eta joan nahi duenarentzat txartelak salgai egonen dira Herriko Ostatuan eta Elutsan maiatzaren 31 arte.
- 18:00etan herriko

dantzariak dantza saioa eskainiko dute.

- Egun osoan herriko emakumeek egindako eskulanak Kultur Etxe-an ikusgai egonen dira.

Turismo bulegoa

Aurten bigarren urtez, turismo bulegoa ire-

ki zen Aste Santuan Kultur Etxean, Udalaren eta Bertiz Partzuergo Turistikoaren eskutik. Aldi honetan, Jasone Mitxeloren herritarra izan zen bulegoaren arduraduna.

Denetara 128 lagun pasatu ziren bulegotik, gehienak Ortzegun eta

Ortziral Santuan. Bisitari hauen artean, gehienak gipuzkoarrak ziren, baina Kataluniatik, Bizkaitik, Zaragozatik eta Madrildik ere etorri ziren, bertzeak bertze, eta gehienak herrian ostatua hartua zutenak ziren. Gehien eskatutako informazioa herriari, ibilbideei, Baztan-Bidasoaldeari eta usategiei buruzkoa izan zen.



ARGAZKIA: ITSASO ELIZAGOIEN

San Migelen irudia herrian

Urtero bezala, Aralarko San Migelen irudiak bisita egin zuen maiatzaren 14an. Jende andana ongi-etorria egin zion eliza atarian. Meza ondotik, aio erranez hurrengo urtera arte agurtu zuten irudia.

Udalak kontratatutako langileak

Lau langile kontratatuko ditu Udalak, udako hiru hilabete eta erdiz lan egiteko. Hainbat lan egin beharko dituzte: herri bazterrak txukundu, farolak pintatu, belarra moztu, igerilekuak garbitu... Hasieran bi izanen dira kontratatutakoak, geroago hirugarrena eta abuztuan azkena. Langileak hartzerakoan herritarra izatea, karga familiarra eta langabezian daraman denbora kontuan hartuko dira.

LESAKA

UDALA → KARTELA ETA PROGRAMAREN AZALA

Virginia Etxepareren kartelak iragarriko ditu Sanferminak

Programaren azal lehiaketa ere gazte lesakarrak irabazi du

Aitor AROTZENA

Duela bi urte bezala, Virginia Etxepare Trigueros lesakarrak egindako kartelak iragarriko ditu aurtengo Sanferminak eta emakume berak egindako lana izanen da bestetako programaren azala ere. Bi lehiaketak irabazi ditu *Saltoka* kartela eta *Dantzarien eleganzia* azalarekin eta honela 500na euroko saria eskuratuko du. Denera, 22 kartel eta 29 azal aurkeztu ziren lehiaketara.

Programaren gibelean aldean joanen den irudia aukeratzeko herriko ikasleen artean egindako lehiaketan, Tantirumairu ikastolako 5. mailako Leire Igoa Apezetxea izan da irabazle, *Irrintzi* lanarekin. 300 euroko saria izanen du, eskola materialean erabiltzeko.

Haurren Eguna

Igande honetan, hilak 29, Haurren Eguna izanen da. Horren harira, 10:30etik 13:30 arte

puzgarriak, jokoak eta zikloak martxan egonen dira. Arratsaldean, berriz, karaokea eta berendua eginen dira.

Erretiratuen ekitaldiak

San Fermin erretiratuen elkarteak ekainaren 9an Milagrorajoanen da. 08:00etan abiatuko da autobusa Lesakatik eta bidean gosalduta ondotik, Milagro herria eta azoka bisitatuko dute. Ondotik, Kadereita bisitatu eta bertan bazkalduta dute eta herrira bueltan Erriberriri (Olite) ere ikusiko dute. Txartelak 30 eurotan



Virginia Etxepareren *Dantzarien eleganzia* eta *Saltoka* lanak.

salgai izanen dira ekainaren 1a bitarte.

Bertzetik, ekainaren 6an mus txapelketa, ekainaren 7an seien txapelketa eta ekainaren 8an despiste txapelketa jokatu dira, 18:00etatik aitzinera goiztan. Ekainaren 10ean, berriz, toka, igela eta bolo txapelketak jokatu dituzte erretiratuek, 18:00etatik aitzinera. Ondotik, afari-

berendua izanen da parte hartzaileentzat.

San Juan Xarrera ibilaldia ere egitekotan dira ekainaren 24an. Oinez doazenak 09:00etan abiatuko dira goizatik eta autobusean 11:00etan plazatik, San Juan Xarreko mezara joateko. Gero bazkaria izanen dute Arantzako Burlada jattetxean. Txartelak 28 eurotan eskuratzen ahal di-

ra ekainaren 16ra arte.

Osasunazaleen liga bukaera

Bortzirietako Gorriak Osasunazaleen taldeak liga bukaera ospatu zuen joan den larunbatean. Trikipoteoa, bazkaria Kasinoan, Osasuna eta Villarealen arteko partida ikusi eta su artifizialekin bukatu zuten eguna.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Beti Gaztekoak Santiago Bidean

Maiatzaren 15ean Santiago Bideko Baiona eta Zuraide arteko etapa egin zuten 51 lagunek, Beti Gazteko antolatutako ateraldian. Hurrengo ateraldia ekainaren 5ean eginen dute, Zuraide eta Elizondo artean eta izena emateko azken eguna maiatzaren 31 izanen da.

XATURETXEA
ZAZPI
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Estrategia - Azalera
Bilaka (Bilaka, 3^{er} Lesaka)
Tel: 948 637 127

BOZZ-AID
LANTZARITZA
Bilaka 01 • T. 948 6376 • LESAKA

USOA
Nekazari kooperatiba
Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Organiak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etkez eteko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibigailuendako gasolioa

AZPIEGITURAK → MAIATZAK 29, IGANDEA

Elizako organo berrituaren estreinaldia egingen da igande honetan

Aste sail batez isilik egon da konponketak egiteko

Nerea ALTZURI

Garbiketa eta konponketak egiteko, organu zaharrak aste batzuz atsedean hartu du. Bitartean, ordea, mezak ez dira isilik egon. Gregorio Mitxelenak bere organu tiki bat elizara ekarri eta elizkizun auzid kantatuak izan dira. Baina igande honetan, hilak 29, organu zaharberriak berelantzen ekinen dio. Inaugurazio moduan, 12:00-etako mezan organoaren soinua entzuteko aukera izanen da lehenbizikoz, eta ondotik, egingen lanaren eta egoera ekonomikoaren informazioa emanen da. Oroigarri bat izateko, hurbildutako guzietan argazkia aterako da eta ondotik, hamaiketako izanen da.

Igandeko ekitaldian parte hartzeko gonbitea egin zaie herritarrei, eta bereziki organoa berritzeko lagundu dutenei.

MIKEL GOIINGERUA

Hilaren 30ean egingen du Aralarko Mikel Goiingeruak Arantzara bisita, 11:00etan.

Taxia

Urte berriarekin batera, Arantzako Taxiak bere zerbitzua estreinatu du. Lehendik ere taxi zerbitzuak badaude herrian, baina zazpi plaza-ko berria da. Amosnekobordako Patxi Iturria eta Josune Otxandorena senar-emazteari zazpi plazako garraio zerbitzua eskaintzea otu zitzairen eta harrera ona izan dute, batez ere kuadrila edota taldeei begirako zerbitzua baita. Asteko edozein egun eta ordutan eskaintzen dute zerbitzua (666 894833/647 404839).



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Organoa moldatzen.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Lizarra aldeko bazterrak ezagutzuz

Arantzako eta Igantziko 55 lagunek Lizarra aldeko tokiak ezagutzeko aukera izan zuten maiatzaren 11n, eliza garbitzeko bidaian. Goizean herritik abiatu eta Noaingo ostatuan gosalduta ondotik, Lizarrara bidean, Santiagoko bideari buruzko azalpenak aditu zituzten eta Eunateko Santa Maria Eliza ospetsua ere ikusi zuten. Ondotik, Arronizko El Trujal Mendia bisitatu eta Lizarra ezagutu zuten. Iratxe jatetxean bazkaldu ondotik, eta etxerako bidea hartu aitzinetik, Abartzuko Azanza patxaran fabrika izan ziren. Bidaia joan ez zirenentzat, berendua izan zen Zahar Txokon maiatzaren 9an. Denetara 43 lagun bildu ziren.

Eskalerak igotzea... ez da azpial
Behetik
plataformak
igogailu bereziak
auki bereziak...

Aforgo-txiki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

Frutas
Verduras
ERANDONEA, S.L.
FRUTAS DE CALIDAD

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

ERROTAZAR
harategia

Bertako
produktuak

Etegara, 3 - BERA
Teli/Faxa: 948 630 088

SUNBILLA

ASIALDIA → GURASO ELKARTEAK ANTOLATUTA

Ludoteka zerbitzua eskainiko da uztailean eta abuztuan

Beheko eskolako obrak tarteko, seguruenik goiko eskolan kokatuko da ludoteka

Maidar PETRIRENA

Azken urteetan bezala, aurten ere, ludoteka zerbitzua antolatuko du Guraso Elkarteak uztailean eta abuztuan. Joan den urteko abuztuan ez zen zerbitzurik eskaini ez zelako neska-mutiko nahikorik apuntatu, baina aurten bi hilabeteetan izanen da, eta betiko ordutegian, 09:00etatik 13:00etara.

Halere, aldaketa txiki bat izanen da tokiri dagokionean: Beheko Eskolako obrak direla eta, seguruenik aurten ludoteka Goiko Eskolan izanen da.

Hezitzaileak, bertalde, Eneritz Rekarte eta Sara Salaberria izanen dira.

Mendi irteerak

Ulibeltzak Mendi Taldeak antolatuta, maiatzan bi mendi irteera egingen dira: lehenbizikoa maiatzaren 15ean egin zen eta Doneztebe-Askin-Mendaurtxarreta ibilbidea izan zen. Eta bertzea, igande honetan, maiatzak 29, egi-

nen da: Berroeta-Abar-tan- Saioa- Belate. 07:00etan aterako dira plazatik.

Informatika ikastaroa

Guraso Elkarteak Lehen Hezkuntzako 3, 4 eta 5. mailako ikasleei zuzendutako informati-

ka ikastaroa antolatu du. Ekainaren 6tik 17ra izanen da 15:00etatik 16:30era, Goiko Eskolan.

Igerilekuko lanak

Uda gainean dugu eta urtero bezala, igerilekuak irekitzeko desiatzen dago jendea. Ho-

retarako igerilekuko lanak emateko, Udalak eskaintza publikoa bidali zuen maiatzaren 11n Enplegu Bulegora, hamar eguneko epea utziz. Momentuz jendea badabil, baina ikusi behar da azkenean norbaitek hartzen duen. Inork hartzen ez badu, enkantera aterako da.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Bortz neska-mutikoren Jaunartzea

Argazkian ageri den boskote honek lehenbiziko Jaunartzea egin zuen maiatzaren 8an, lau neska eta mutiko batek. Josune Madariaga Iriarte, Amaia Arriaga Demina, Jon Mikel Gaztelumendi Jorajuria, Saioa Mariñelarena Altzuri eta Ane Migeltorena Mujika izan ziren eguneko protagonistak.

Ahari lehiaketako saria

Joan den maiatzaren 6an Donezteben Uda-berriko Feria ospatu zen eta horrekin batera, ahariaren lehiaketa izan zen. Mutur gorrietan lehenbiziko eta hirugarren sariak lortu zituen Beñardo Bazterrika herritarra izan genuen. Zorionak hemendik Beñardori.

San Migelen irudia igandean bisitan

Maiatzaren 15ean etortzeko izanen da San Migelen irudia Sunbillara baina egutegian aldaketa bat izan da eta azkenean, maiatzeko azken igandean, hilak 29, etorriko da.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Hizea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUJAN

F. LANCHAS

Akudoladorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzaila
Jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 • M: 607 406 781

XITZELI

Alorre 1 - BERA
Phone: 948 631 440

ANTZUZELAI

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel: 948 631 317 • Fax: 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Antzinaideak, angeluak, oma antzinaoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tuminiak, entzizak, moldurak, zokoak, hilarriak, marrazkiak

KIROLA → AZPIEGITURA BERRIAK

Ekain hasieran ekinen zaie futbol-zelai berria eraikitzeko lanei

Denboraldi
berrirako prest
egonen da

TTIPI-TTAPA

2004an Doneztebe-ko Futbol Taldea sortu zenetik, entrenamendurik Lesakan eta etxeko partidari Iruñean jokatu behar izan dituzte taldeko ia 200 jokalariek. Baina urritik aitzinera, herriari bertan jokatu dituzte, Aparan eta Legasa arteko lur eremuetan kokatuko den futbol-zelai berria.

Maiatzaren 9an onartu zuen Udalak lanak egiten dituen enpresaren eskaintza. Aldi baterako elkartutako Mariezkurrena, O.P.T. eta Mondo enpresek egiten dituzte lanak, 1.198.000 euroko aurrekontuarekin.

650.000 euro Nafarroako Gobernuak bideratuko ditu, 120.000 euro Kirol Kontseiluak eta 300.000 euro Udalak. Lanen lehenbiziko fasean bideak, urbanizazioa, zelai artifiziala, argiteria, 300 pertsonendako gradak eta aldageletarako zoladura eta saneamendurik egiten dituzte.

Ekain hasieran ekinen zaie lanei eta futbol denboraldia hasterako, akituak egotea espero da.

Herri krosa

XXXIII. edizioa bete-ko du Erreka Kirol Elkar-
teak antolatuta ekainaren 12an egiten den herri lasterketak. Ohi beza-

la, adinaren arabera banatuko da. Hala, aurrebenjaminak eta benjaminak 200 metroko ibilbidea egin beharko dute; alebinak 500 metrokoa; infantilek kilometro bat; jubenilek eta emakumezko seniorrek lau kilometro eta gizonezko seniorrek eta betaranoek zortzi kilometroko itzulia. Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilek 10:30ean abiatuko dira eta gainerakoak 11:30ean.

Aitzinetik eman daitezke krosetan parte hartzeko izena. Eta horretarako www.herrickrossa.com web orrian sartu behar da. Lehenagotik apuntatu gero, lau euro ordaindu behar dira eta egun berean, bertz euro. Proba hasi baino orduerdi lehenagotik itxiko da izen-emateko epea.

SARIAK

Gizonetan denborarik onena egiten duenak 150 euro jasoko ditu; bigarrenak 90 euro; hirugarrenak 60 euro; laugarrenak 45 euro eta bosgarrenak 30 euro. Emakumezkoetan, lehenbizikoak 75 euro eskuratuko ditu; bigarrenak 45 euro eta hirugarrenak 30 euro. Bertzelako sariak ere banatuko dira.

Entrenatzaile berria Errekan

Errekako eskubaloi talde nagusian entrenatzaile berria izanen dute heldu den denboraldian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Titi eta Santyko pintxoak «goxoenak»

Doneztebarrak Merkatarien Elkartek antolatuta, apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean egin zen aurten laugarren aldiz Pintxo Lehiaketa, Inurrieta Bodega, ANAPEH eta Udalaren laguntzarekin. Bortz ostaturik parte hartu zuten: Santy, Amezti, Titi, Cafe eta Mailynek. Bi egunez 2.000 pintxotik goiti dastatu ondotik, epaimahaiak goxoen Titi ostatuarena zela ebatzi zuen eta herritarrek, berriz, Santyrena zela. Inurrieta Bodegak emandako saria Fernando Ruizi egokitu zitzaion. Horrez gain, parte-hartzaile guztiei diplomak banatu zitzaizkien.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Ahari lehiaketako lehenbiziko sariak Sunbillara eta Beintza-Labainera joan dira

Maiatzaren 6an egin zen Doneztebeko Udaberriko Feria, giro eta eguraldi bikaina lagun zela. Eskualdeko artisauen erakusketa izan zen egun guztian eta eguerdian, berriz, Malerrekako V. Ahari Txapelketa egin zen. Mutur gorrien kategorian, Sunbillako Pixarneko borda baserriko ahariak lortu zuen lehenbiziko saria, 120 euro. Bigarren postua Iturengo Zubilikobordako ahariarentzat izan zen (70 euro) eta hirugarrena ere Pixarneko bodega joan zen (50 euro). Mutur beltzetan, Beintza-Labaiengo Iñarrea baserriko ahariarentzat izan zen lehenbiziko saria (120 euro), bigarrena Donamariako Zabaltenea baserriko ahariarentzat (70 euro) eta hirugarrena Urrozko Iturraldekoarentzat (50 euro). Guztira 10 ahari aurkeztu ziren lehiaketara, lau mutur beltzen kategorian eta sei mutur gorrietan. Epaimahaiak Alfredo Bazterra albaitariak eta Patxiko Mitxelena Zubietako alkateak osatu zuten.

Dani Urroz donamariarrik entrenatzaile postua utziko du eta bere partez Patxiku Ganboa ariko da. Patxiku lehen ere entrenatzaile izandakoa da eta laguntzaile gisa Luismi Apezetxea eta Felipe Ganboa ariko dira, biak ere jokalaririk izandakoak.

Merkatarien sari potoloa Etxalarrera

Doneztebarrak Merkatarien Elkarteko dendetan bezeroen artean banatutako boletoekin 2.000 euroko erosketa txartelaren zozketa egin zen apirilaren 30ean eta saria Etxalarko Marta Maiarentzat izan zen. Hi-

laren 7an gastatu zuen elkarteko dendetan.



ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → ITURRIAREN INGURUAN

Uritzako besta ekainaren 11rako antolatu dute auzotarrek

Bazkarirako txartelak ekainaren 5a baino lehen hartu behar dira

Fermin ETXEKOLONEA

Azken bozpasei urteotako ohiturari segituz, Uritzako inguruko baserri eta bordako auzotarrek ez dute hutsik egin nahi izan. Eta horrela, ekainaren 11rako besta antolatu dute iturriaren inguruan.

Eguneko egitaraua hurrengo aldizkarian emanen dugu, baina johan nahi duenak jakin dezan, bazkarirako txartelak salgai daude Errandonea ostatuan, Herriko Ostatuan eta Santxo okindegian. Ekainaren 5era bitarte egonen dira salgai.

Musika emanaldia

Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako ikasleek musika emanaldia eskainiko dute



ARGAZKIA: ERNESTO

Berriz ere ospakizunetarako aitzakia izanen da Uritzako iturria.

ekainaren 7an, arratsalde. Musikarien artean, herritarrak ere izanen dira eta eguraldi ona egiten badu, plazan ariko dira eta txarrarekin estalpean.

Matrikulatzeko arazoak

Herria eskolarik gabe gelditu zenetik, azken hamasei urteotan Doneztebera edo Iturenera joateko aukera izan dute gure herriko gaz-

tetxoek. Aurten, ordea, hiru ikasle Iturenen matrikulatzeko arazoekin dabilta: hurrengo ikasturtean Iturenera joan nahi dute, baina hiru ikasle horiek Iturenera joateak irakasle bat gehiago eskatuko luke eta horrekin ez dago ados Nafarroako Gobernu.

Joan den otsailean sei ikasle berrik egin zuten aurrematrikulazioa Iturenengo eskolan, horietatik erdiak zubietarrak. Hartara, Haur Hezkun-

tzan 16 ikasle izanen lirateke, eta 14 ikaslelik gora direnean bi tutore tokatzen dira. Gobernuaren erantzuna, ordea, Zubietakoek Donezteben matrikulatu behar dutela izan da. Gurasoak ez daude geldirik egoteko eta eskaraker egin eta egin ari dira, baina momentuz erantzunik gabe.

Lerro hauen bidez, gure elkartasuna adierazi nahi diegu herriko hiru guraso horiei.

Jaunartzeak igandean

Herriko bi neska-mutiek Lehen Jaunartzea egingen dute igande honetan, maiatzak 29. Julen eta Naroa Santes-teban lehengusu-lehengusinak izanen dira eguneko protagonistak.

Eskolatik Kanarietara

Iturenengo eskolan ari diren herriko bi neska gazte, Mikele Etxekolonea eta Dubba Saadi, Kanaria aldean dabilta eta hantxe pasatzeko dute aste hau. Eskola lbiltariak programaren bidez, Ituren, Saldias, Eratsun eta Beintza-Labaiengo 15 ikasle eta bi ikasle harat joanak dira eta ostiralean itzuliko dira. Ea ongi egiten duten buelta.



ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☞ Langile autonomoak ☞ Nekazariak eta mendi langileak ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak ☞ Lan-Kontrabutarako laguntzak ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☞ Diru-laguntza ezberdinak ☞ Kontabilitateak ☞ IVA eta IRPF ☞ Errenta aitortpenak ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESABA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ERREKALDE

PLAZA KONTRATUAK

DUTUAK

KONTABILITATEK

TEL: 948 630 259 BERA

ZUBIONDO

Jatetxea

Agardotegia jatetxea

Tel: 948 631 474

Alasta karrika

BERA NAFARROA

Muebles 
Telletxea

Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811
info@mueblestelletxea.com
www.mueblestelletxea.com

**OUTLET
LIKIDAZIOAK**

GANBARA

ALTZARI MODERNOAK

2. SOLAIRUA

ALTZARI RUSTIKOAK

1. SOLAIRUA

Denda berrantolatu dugu

BASABURU TTIKIA

HEZKUNTZA → OPORRETAN

Beintza-Labaien, Saldias eta Eratsungo ikasleak Hondarribian izan dira kanpaldian

Bi egun pasatu dituzte neska-mutiko eta irakasleek

Ostegunean, Hondarribian txalupa hartu eta Hendaiko hondartzaraino joan ziren, bertan egun osoa pasatzeko.

Ortziralean, berriz, Hondarribiko hondartzan pasatu zuten goiza eta aterpean bazkaldu ondotik, beraien herrietarako bidea hartu zuten. Ikasle eta irakasleen arabera, primeran pasatu zituzten bi egunak.

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 12an eta 13an, Beintza-Labaien, Eratsun eta Saldiasko eskoletako ikasleak, Hondarribiko Juan Sebastian Elkano aterpera joan ziren eskurtsgisa bi egunetarako.



ARGAZKIAK: EDURNE BERTIZ

Aski gustura ibili dira neska-mutikoak Hondarribian pasatu dituzten bi egunetan.

ITUREN

HAUTESKUNDEAK → UDAL HAUTAGAIK EZ

Oraingo udalbatzak bertze sei hilabetez segituko du Herriko Etxean

Bigarren deialdia azaroan egingen da

Arkaitz MINDEGIA

Frankismo garaia ondotik, sekula gertatu ez dena gertatu da aurtengo hauteskundeetan: ez dela talde bakar baten aurkeztu Herriko Etxerako. Bi talde

aurkeztea izan da ohikoena Ituren eta halaxe gertatu zen 1987an (Taldea Berria eta Herri Batasuna), 1995ean (Eusko Alkartasuna eta HB) eta 1999an (EA eta Euskal Herriarrok). 1991n hiru aurkeztu ziren, EA, HB eta Talde Berria eta 2003an eta 2007an bakarra, EA.

Aldi honetan inor aurkeztu ez denez, azken lau urteotan Herriko

Etxean aritu direnek bertze sei hilabetez segitu beharko dute. Azaroan hauteskundeetako bigarren deialdia egingen da eta orduan ere aurkezten ahalko dira taldeak. Ikusiko da zer gertatzen den.

Dantzariak Agoitzera

Ekainaren 5ean Agoitzera egingen den Dantza-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ikasturte bukaerako kontzertua ekainaren 6an

Mendaur Trikitixa Eskolako ikasleek ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute ekainaren 6an, astelehenarekin. Ikasturte guztian ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera izanen dute neska-mutikoek, 17:30etik aitzinera.

ri Tiki Egunean parte hartuko dute herriko gaztetxoek. Seguru emanaldi aski polita eskainiko dutela.

Ahari lehiaketa

Doneztebeko ferietako ahari lehiaketan, gutur gorrietan 2. saria Zubilikobordara joan da.

AISIALDIA → PILOTAREN IBILBIDEAREN BARRENEAN

Aurten lehenbiziko aldiz Laxoaren Eguna ospatuko da larunbat honetan

Bertzeak bertze, laxoa partida eta artisau erakusketa egingen dira

TTIPI-TTAPA

Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatzen duen Pilotaren Ibilbidearen barne, aurten lehenbiziko aldiz, Laxoaren Eguna egingen da larunbat honetan, maiatzak 28. Eta kirol honekin duen lotura dela eta, Oiz aukeratuko dute horretarako.

17:00etan laxoa partida jokatuko da. Baztan-Bidasoko txapelketako lehia izanen da eta gainera, jokatzen ari diren bitartean jendearendako azalpenak emanen dira, jokoaren



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Afizio handia dago herrian laxoan jokatzeko.

arau eta ezaugarrien berri emanez. Araudia hain berezia izanik, publikoari orri bat ere banatuko zaie azalpenekin.

Ondotik, laxoari buruzko erakusketa inauguratuko da. Laxoa elkartearen panel bilduma eta materiala ere ikusgai egonen da eta ho-

rren inguruan xehetasunak ere kontatuko dira.

Akitzeko, inguruan ohikoak diren produktuek dastatzeko aukera izanen da, eta bazterrak

alaitzeko musika ere bai. Aipatu,aldi berean, herrian nabarmentzeko artisauak daudenez, artisau erakusketa ere egingen dela.

Partzuergotik azaldu dutenez, «jende asko hurbiltzea espero dugu, hainbertze plaza haunditan jokatu den antzina eta gaur egun gure eskualdean bakarrik jokatzen den jokoa ikustera».

LAXOA TXAPELKETA

Bi dira Baztan-Bidasoko Laxoa Txapelketan ari diren herriko taldeak: A multzoan Sergio Fagoaga, Bittor Zelaieta, Iñaki Mendiola eta Juan M^a Mindegia ari dira eta B multzoan, Iker Bereau, Ugutz Zelaieta, Koldo Mindegia eta Jose Agustin Mindegia.

60 aniversario
Casa Cambra
Zure erosketarengatik
urteurreneko oparia

edredoi fundak • albomozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak
maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

URROZ/BEINTZA-LABAIEN

TURISMOA → HASI DA DENBORALDI BERRIA

Diskapazitatea duten bisitariei atentzio berezia eskainiko zaie Leurtzan

laz bezala, 35.000 bisitari espero dira aurten ere

TIPI-TTAPA

Hasi da denboraldia Leurtzako urtegieta eta urtero bezala, Aisirako Naturgunean zaintza lanetan ariko direnak bi lagunak ere kontratatu dira: Urrozko M^a Jose Arburua eta Beintza-Labaiengo M^a Jose Pildain izanen dira. Haiek arduratuko dira instalazioak txukun mantentzeaz eta informazio zerbitzua eskaintzeaz.

Aurtengo egitasmoen artean, hiru azpimarra daitezke: alde bateatik, Bertizko Partzuergo Turistikoaren eskutik, bisita gidatuak antolatuko dira udako sasoiaren eta urte osoan talde antolatuentzat.

Bertetik, diskapazitatea duten jendearendako informazio berezia, braille sisteman, eta atentzio egokia prestatuko dira, horretarako



UTZITAKO ARGAZKIAK

Leurtzako urtegiek gero eta turista gehiago erakartzen dute.

bertako garderen formazioa hobetuz. Aipatu, Leurtzako Urtegiak Aisirako Naturgune aukeratu izan direla estatu mailan, diskapazitatea duten jendearendako baliabide egokiak dituen naturgune gisa.

Azkenik, webgune berri bat prestatzeko asmoa ere badago, Leurtzako Aisirako Naturgunea zer den, zein instalazio eta zerbitzu dituen eta hainbat informazio emanez.

DATUA

37.000

EUROKO

aurrekontua kudeatzen dute Urroz eta Beintza-Labaiengo udalek Leurtzako urtegieta, Nafarroako Gobernuarekin duten hitzarmenaren bitartez.

35.000 BISITARI ETA AURREKONTU MURRITZA

35.000 lagunek bisitatu zuten joan den urtean Leurtza, eta aurten ere halaxe espero da. Gehienak udako sasoiaren etortzen dira, itzal freskoaren bila eta naturaren patxadaz gozatzera. Baina gero eta gehiago dira udaberri eta udazken aldera bisitan etortzen direnak ere. Azken urteotan bisitarien gorakada ikusita, naturaren kontserbazioa-

ren kontzientzia, bisita gidatuen bidez, eta lekuaren erraztasuna, bide egokitu eta informazio berezien bidez, naturgunearen kudeaketaren helburu nagusiak bihurtu dira.

Horretarako Urroz eta Beintza-Labaiengo udalek urtero 37.000 euroko aurrekontua kudeatzen dute, Nafarroako Gobernuako Ingurumen Sailarekin duten akordioaren bidez. Diru hau guardak, zerbitzuak eta instalazioak mantentzeko doi-doi ailegatzen da. Azken urteotan, halere, proiektu berriak bultzatzeko laguntza ekonomikoa (Caixa, Nafarroako Kutxa eta Rural Kutxa) eta Bertiz Partzuergo Turistikoaren laguntza logistikoa izan dute.

ONTZIRIK EZ URETAN

Biodibertsitatearen kontserbazioa dela eta, debekatua dago urtegieta uretako ontziak erabiltzea. Aldiz, urtegieta sua egiteko aukera izanen da udan.

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

J.RAMOS

zolak akutzilatu eta barnizatzen ditut

Sakelekoak: 637 836 023 - LESAKA

BERA

Zere inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinoera, armiarma, kukuxu...) eta orretai xagutzar garbitu nahi baduzu, ditut Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

UDALA → HIRIGINTZA PLANA

Gobernuaren onespeneren zain, behin betiko onartu da Hirigintza Plan berria

Udal taldearen legealdi honetako azken erabakia izan da

Joseba URROTZ

Aitzinetik Udalak lehen onespenera emana bazion ere, alegazioak egiteko garaia izan da, eta agertu ziren biei erantzuna eman eta gero, behin betiko onartua gelditu da Hirigintza Plan berria. Orain, Nafarroako Gobernuaren onespenera da falta dena.

Aipatu, bertzelde, hau izan dela udal taldearen azkeneko erabakia. Izan ere, maiatzaren 22tik aitzinera ezin baita erabakirik hartu talde berririk aurkeztez ez den bitartean.

Usategien subasta aurten

Aurten tokatzen da usategi edo ehiza postuen subasta egitea. Ematen du gero eta zailagoa dela postuen saltea, gero eta uso guttiago heldu delako edo, baina merkexeari bada ere, itxaropena badago aurten ere subastan izanen dela hartuko duenik, eta hartzen duenak lau tatarako izanen du eskubidea bertan ehizatzeke.


Bertze aldaketarik ez bada behintzat, abuztuaren 13an, larunbatarekin, izanen da subasta, eta bortz ehi zatoki aterako dira lehiaketara. Denen artean, 34.000 euro inguru batzen dute abiatzeko prezioan.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Aurtengo biztanleen errolda, herria ttikitzen!

Aurtengo biztanleria datuak ere onartu dira, alegia, 2011ko hasieran herria izena emana zuten guzien kopurua. Iazkotik beherakada haundi xamarra izan da: hamahiru lagun guttiago, hiru zendu direnak eta hamar herritik joan direnak. Etorri ere egin dira, hiruzpalau lagun, baina horiek datorren urteko erroldan agertuko dira. Honela ba, 177 biztanle daude gaur egun Urrotzen, 104 gizaseme eta 73 emakume, desoreka haundi xamarra. Herriko neska-mutil batzuk izan dute umerik, baina ez dira herrian bizi, eta ea ekartzen ahal ditugun! Baita emakumeak ere! Argazkia plazan ateratakoa da, baina ageri diren haur gehienak ere kanpokoak dira, Txispekobordakoa kenduta.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

MALERREKA

GIZARTEA → MALERREKAKO BIZTANLEENTZAT

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak aholkularitza zerbitzua eskainiko du

Hilabeteko bigarren eta laugarren ortziraletan izanen da Donezteben

TTIPI-TTAPA

Ekainetik aitzinera, zerbitzu berria izanen dute Malerrekako biztalleek, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak orientazio zerbitzua eskainiko baitu Donezteben, Malerrekako Mankomunitatearen bulegoetan. 1979az geroztik kontsumitzaileei informazio eta babesa ematen dien elkarte da Iratxe, eta Baztan, Bertizarana, Bortziriki eta Leitzan lehendik ari da lanean. Hilabetean bi aldiz eto-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mikel Bezunartea Iratxe Kontsumitzaileen Elkartearen kideak urteak daramatza eskualdera etortzen.

rriko da Malerrekara, hilabeteko bigarren eta laugarren ortziraletan, 10:00etatik 13:00etara. Halere, ekainean, hirugarren eta laugarren ortziraletan eskainiko da

zerbitzua, hilaren 17an eta 24an. Salbuespen horren arrazoia, bulego aldaketa da. Ekaineko lehenbiziko asteetan,

Malerrekako Mankomunitatearen Merkatarien Karririkako bulegoak utzi eta Zazpigarutze auzoko egoitza berrira pasa-

tuko dela aurreikusia da. Horren harira, Jon Etxague Mankomunitateko idazkari kudeatzaileak azaldu digunez, ez da egoitza berriaren inaugurazio ofizialik egingen.

HONDAKINEN EDUKIONTZIAK

Hondakin en edukiontzia dauden eremuetan itxurak egiteko lanak ere esleitu ditu Malerrekako Mankomunitateak. 27.000 eurotan egin ditu eta irail bukaera baino lehenagotik akituak egon beharko dute. «Ez dira Malerrekako edukiontzia eremu guztiak itxiko», jakinarazi digu Etxaguek, «baina guttienez herri bakoitzeko eremu bat bai».

EUSKARA → MALERREKAKO EUSKARA ZERBITZUAREN ESKUTIK

Hizkuntz eskubideei buruzko tailer irekia larunbat honetan Donezteben

TTIPI-TTAPA

Hizkuntz eskubideen jabetasunaren kontzientzia hartzeko eta horri batera, hizkuntz eskubideen urraketan aitzinean egin daitekeen hausnartzeko, tailerra egingen da larunbat honetan, maiatzak 28, Doneztebeko liburategian. Malerrekako Euskara Zerbitzuak antolatuta du eta 11:00etan hasita, ordu eta erdi-tailerra izanen da, Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren arduraduna den Garbiñe Petriatik gidatua.

Behatokia Euskal Herriko herri-tarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan bermatzera zuzentzen du bere jardueran, hizkuntz eskubideen edukiak zabaldu eta hizkuntza erabili eta garatzeko es-

kubidea defendatzeaz gainera.

Tailerra irekia izanen da, eta joan nahi duenak agertu bertzerik ez du egin behar.

LANKETA GAIK

Tailerrean landuko diren atalak hauek izanen dira: munduko hizkuntz aniztasuna eta hori deusezten ari den prozesu globalizatzeaz ohartarazi; munduko hizkuntzen egoerari begirada bat eman; Euskal Herriko legeek aitortzen dituzten eskubideak ikusi; hizkuntz eskubideen inguruko hausnarketa egin adibide praktikoen bidez; Behatokiaren lan ildoak ezagutarazi eta hizkuntz eskubideen urraketak salatzen den Euskararen Telefonoaren berri eman.

arropak · maindireak
mantak · nordikoak
toallak · kortinak
alfonbrak

Goya

Alemania, 1 · Tel: 948 630 083

BEINTZAKO OSTATUA

☎ 948 45 00 14

webela@albergoakmaratza.com
www.albergoakmaratza.com

1173 BEINTZA LABARRA

ORBELA

616 513 497

Pititi ESKABAZIOAK

GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK

Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 30 m³

Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax: 948 45 13 89
C/ Amezitia, 1 · 31740 Doneztebe (Nafarroa)

MAIATZAK 22 → UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

Aurreko Udalak beste lau urtez segituko du lanean

Talde bakarra aurkeztu da udal hauteskundera

Fernando ETXEBERRIA

Espero zen bezala, beste hautagaririk aurkeztu ez denez, azken lau urteotan Udala osatu dutenak ariko dira hurrengo lau urteetan ere lanean. Zinegotzi batzuek badute meritua, izan ere, urte asko baitaramatzate udal txetan. Gainera, kon-tuan hartzekoa da horrelakoetan gorai patzea baino ohikoagoa izaten dela kritikatzeko.

HERRITARREN PROPOSAMENAK

Legealdi berrian, Udalak egin beharko litzuzkeen proiektu edo asmoen hitz egin dugu herritar batzuekin eta, besteak beste, proposamen hauek jo dituzte garrantzitsutzat: eskola zaharra moldatu, elizatik Martineara doan

bidea zabaldu, urdeputadora jartzeko aukera aztertu, neguan karrikatetik elurra kentzeko makina erabiltzea bideragarria ote den ikusi, autoentzako aparkalekua egiteko aukera serio-tasunez pentsatu –gaur egun 110 auto baino gehiago daude–, herrigunea zabaldu hartara herrigunetik kanpo etxebizitzak eraikitzeko exijitzen diren 1.500 metro koadroko eremua erabiltzeko beharrik izan gabe, Iturenen gisara herrian gasa paratu, norberaren erabilerako pasabide nagusiak ixten dituzten herritarren gehiegikeriak saihestu, Nafarroako Gobernuak herriarenak direla kontsideratzen dituen iratze-lekuen inguruan Foru Gobernuaren eta herritarren arteko akordioa berriz planteatu... Azkenik, karriketako instalazio elektrikoa gainbegiratu eta hobetzea ere garrantzitsua delakoan daude bizilagunak, horietako batzuetan argi gutxi dagoelako.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

50 urte ezkondu egin dituzte Atanasiak eta Ignaciok

Atanasia Elizalde herritarren eta Ignacio Arruabarrena oriotarraren Urrezko Ezteiak ospatu zituzten maiatzaren 8an Ezkurrako elizan, duela 50 urte ezkondu ziren tokian. Geroztik Orion bizi dira. Elizkizunaren ondotik, biloba batek aurrakua kantatu eta beste batek dantzatu egin zieten, eta Ignacioren itsasoko lana gogoan, Orioko lau arraunlarik arkua egin zieten. Familiako argazkia atera ondotik, Barranka ostatuan bazkaldu zuten gero. Egonaldi luzea egin zuten kanta eta umore ederrean eta ilunabarrean, 20:00 aldera, autobusa hartu eta beraien txokora itzuli ziren.

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
Zure laguntza eskertzeko **DOKUMENTU-POLTSA** bat izanen duzu opari

gure bizirik
abiarazteko
proiektu
Can
proiektu
zenbakia
15.996

ttipi-ttapa

Eskia ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kuxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra abenduaren 30a baino lehen.

LEGASA

ENPLEGU SOZIALA → HERRI LANAK EGITEKO

Kontzejuak bi langile hartuko ditu sei hilabeteko kontratuarekin

Ekainean hasiko dira eta hainbat lan egin beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Hurrengo hilabetean eta azken urteotan bezala, Kontzejuak bi langile hartuko ditu herrian hainbat lan egiteko. Kontratu egiterakoan, herriko langabeei lehentasuna emanen zaie.

Lan kontratuasei hilabetetako izanen da eta orokorrean, herrian mantentze lanak egiten ari beharko dute. Halere, bereziki eraikitzen ari diren atarpean ariko dira.

Kontzejurako hautagairik ez

Maiatzaren 22ko hauteskundeen harira, Lega-

sako kontzejurako ez zen hautagairik aurkeztu. Beraz, gaur egun Kontzejuan dagoen taldeak be-

rria atera arte segitu beharko du. Gazte talde bat egon da azken urteotan Kontzejuan: alkatea Ai-

tor Zelaieta eta zinegotziak Iban Urriza, Asier Irisarri, Dabid Andrezena eta Laura Andresena.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertizarana Eguna aurten Legasan

Ekainaren 11n ospatuko da aurtengo Bertizarana Eguna eta Narbarteri lekukoa hartuz, Legasan egingen da. Gainera, oraingo bestarekin hamar urte izanen dira besta egiten hasi zenetik. Hala ere, bestaren xehetasunak hurrengo alean emanen dira.

EUSKARA

UEMA Eguna ekainaren 4an egingen da Bergaran

TTIPI-TTAPA

Gure hizkuntzak hardezan arnas lelopean ekainaren 4an egingen da UEMA Eguna, aurtengoan Bergaran (Gipuzkoa). Berezia izanen da, gainera, aurtun 20 urte bete baititu Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Bertzeak bertze, hitz gurutzatuen lehiketa, haurrentzako jokoak eta tailerrak, ekitaldi instituzionala, kantu-jira, herri-bazkaria (txartelak UEMAKo udaletan salgai hilaren 29ra arte), kantu-animazioa, dantzaldia eta kontzertuak izanen dira. Arantzeta, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta eta Leitza dira UEMAn daudden inguruko herriak.



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN
948581959 | 948 637404

LEKUNBERRI
BERA | SAN JOSE
ELIZONDO | BAZTAN

LEITZA | 948 61 09 64 (SALAKO TELEFONOA)
LESACA | 948 62 75 77 (SALAKO TELEFONOA)
BETELU | 948 51 34 67 (SALAKO TELEFONOA)

DONEZTEBE | SAN PEDRO | 948 45 19 14 (SALAKO TELEFONOA)
ELIZONDO | BAZTANDARRA | 948 58 02 50 (SALAKO TELEFONOA)

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

542. ALEKO IRABAZLEAK

- * EREIN 3 LIBURU
Axun IPARRAGIRRE ARBURUA | BERA
- * AQUARIUM 2 SARRERA
Jose M^o ZAMORA ARREGI | OROÑOZ MUGAIRE
- * ELKAR XABI SANSEBASTIAN CDa
M^o Jesus IRUNGARAI INDA | AMARU
- * LUDITOYS KOSMOJET JOKOA
Koro ARRUTI PEÑA | ARIZKUN
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
Jone GOIA ERRANDONEA | BERA
- * TTARTTALO POLOETAKO ANIMALIAK LIBURUA
M^o Carmen GOÑI MITXELENA | BERA



LIBURUA + CDa
Pirribe, Porrotx eta Marimotots
www.kaboporrotxa.com



LIBURUA
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com

TTIPI SASKIA



PRODUKTUAK:
TTARTTALO ARGITALETXEA | LIBURUA
IBAIZABAL ARGITALETXEA | LIBRETATXOIA
EREIN ARGITALETXEA | 2 LIBURU
TAKOLO, PIRITX ETA PORROTX | CD



KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com



TRANSHUMANTZIA CDa
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

DESKONTUAK

Agara
karolak
%5 kirol artikuluetan

Amaia
kud eta estimo zerbitz
%5 kosmetikan %10 oparitan

ALTZURI
%5 etxe-tresnetan

BERAUTO
%5 enrekarietan

bixkiak
%10eko deskontua

GOIZUETA

KULTURA → KULTUR TALDEA ETA EUSKARA ZERBITZUA

Kalean da Xaporen hamargarrena

Hainbat atalez hornitu dute aldizkaria

TTIPI-TTAPA

2002an lehenbiziko aldiz argitaratu zenean, ale gehiago argitaratzen saiatuko zirela esan zuten Kultur Taldeak eta Euskara Zerbitzuak. Eta halaxe egin dute, ez bat eta ez bi, dagoeneko Xapo aldizkariaren hamargarren alea ere kaleratu baitute.

Ohi bezala, edukiz hornitua argitaratu dute; atzera begirako tartean 1992 urteari begiratu zaio, hilabete kulturalaren errepasoa ere ageri da, Esteban Arotzenak Orreagatik Santiagora oinez egin-

dako bidearen kontaketa egin du, Felix Loiarteren herriko argazkiak ere ikus daitezke eta Guraso Elkarteari eskainitako erreportajea eta Gazte Asanbladaren 20. urteurreneko elkarrizketa ere hortxe daude. Atal gehiago ere baditu aski interesgarria den Xapo aldizkariak. Horretarako, onena irakurtzea.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Txapela lortzeko atarian

Nafarroako Kirol Jolasetan eta Zizurko Txapelketan argazkiko bi mutiko hauek izan dira finalistak, Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxea. Alde batetik, Lizarran Aldabideko Urtzi Nazabal eta Josu Olaetxearen kontra 9-18 galdu zuten. Zizurren, berriz, 13-16 galdu zuten Apezetxeak, Oberenako Mataren kontra.



TESTUA: ITSASO LUJANIO / ARGAZKIA: NAIARA AROTZENA

Festa giro ederra

Balorazio ona egin du Gazte Asanbladak Txino auzoko jaien inguruan. Ostiraleko bertso saiora hurbildutakoek nahiko barre egiteko aukera eduki zuten eta gaueko mus txapelketa ere arrakastatsua izan zen. Larunbat goizean, Isidro eta Kontxitik botatako txupinazoarekin eman zitzaizen hasiera ofiziala festei eta herriko dantzariak ere emanaldi bikaina eskaini zuten. Halere, ekitaldirik nagusia asto lasterke-ta izan zen. Bazkarian, bestalde, 250 lagunetik gora bildu zen eta Gazte Asanbladak 20. urteurrenaren harira egin zuten zozketako saskia Ixiar Bakerori egokitu zitzaion. Arratsaldeko dantzaldian eta gaueko kontzertuetan ere ibili zen jendea.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

42 irteera egin dituzte suhiltzaile boluntarioek azken urtean

Azpirarratzeko modukoa da herriko suhiltzaile boluntarioen lana. Azken urtean, 42 irteera egin dituzte, horietatik 19 ambulanzienak izan dira eta hiru salbamedukoaak –ambulanzia taldea eta suhiltzaile taldearena–, azken hauek istripuen ondorioz. Baso edo larreetako bederatzi sute ere artatu behar izan dituzte, zortzi errepede garbiketa egin eta sei salbamedu –istripuez gain, mendian galdutako jende bila–. Lan handia egiten duten arren, jendea falta da oraindik. Edozein kasutan, egindako lana eskertzeko Udalak bazkaria eman zien maiatzaren 14an.



UTZITAKO ARGAZKIA

Guraso Eskola arrakastatsua

Gisa guztietako gaiak lantzeko aukera izan da Guraso Eskolan eta zerbait nabarmen-tzekotan, hori parte-hartze handia izan da, jendetsuak izan baitira. Guztien artean, bereziki Ixak Salaberriarekin sukaldian egindakoak bildu du jendea –argazkian–.

AZPIEGITURAK → OBRA BERRIAK

Bide bazterretan babes gehiago jarri da Kaxetatik herrirako zatian

la zati gehiena babestua gelditu da horrela

Kontxi KLABER

Kunetak egitearekin ez dira bukatu kaxetatik herrira arteko obrak. Orain aurretik horretan aritu badira ere bukatzeko, quitamiedosak edo bide bazterretako babesak jarri dituzte. Lehendik bazeuden leku batzuetan, baina orain ia zati gehiena babestua gelditu da.

2011ko aurrekontu orokorra

2011ko aurrekontu orokorra eta hura be-tearazteko oinarriak, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Udaleko iragarki taulan jarri ziren. Ondorengo hamabost egun balioduneko epean ez zen erreklamaziorik jaso eta orain, epea amaituta, behin betikoz onetsitzat jo da.

ARGAZKIA: KONTXI KLABER
Bide bazterreko babesak.



GOIZUETA

KIROLA → ISKIBI KANPINAK ANTOLATUTA

Mendi bizikleta zeharkaldia egingen da ekainaren 5ean

32 eta 25 kilometroko bi ibilbide izanen dira aukeran

TTIPI-TTAPA

Aurten bigarren aldiz, mendi bizikleta zeharkaldia antolatu du Iskibi Kanpinak. Ekainaren 5ean, igandea, egingen da eta bi ibilbide izanen dira aukeran, bi-

ak ere inguruko bazterretan barna egingen direnak eta joan den urteko itzuliarekin alderatuz, desberdinak. Zailtasun haundieneko ibilbideak 32 kilometro eta 1.000 metroko desnibela izanen du eta besteak 25 kilometro. Hornidura puntu bat ere izanen da bidean.

Izena egunean bertan eman beharko da 09:00etatik 10:00etara,



UTZITAKO ARGAZKIA

Txirrindulariak joan den urtean, irteera orduaren zain.

10 euro ordainduta –asegurua barne–. Ibilbideak 10:00etan abiatuko dira kanpinetik eta kaskoa eramatea ezinbestekoa izanen da.

Behin helmugara ailegatuta, dutxak, opa-

riak, luntxa eta aparkatzeko lekua ere egonen dira eta 12 euroko metua ere eskainiko da kanpinean egun horretan.

Antolakuntzak argi utzi nahi izan du ez di-

tuela bere gain hartuko arduragabekeriengatik gerta daitezkeen istripuak. Lanean ariko direnei kasu egitea eta denon artean ingurua behar bezala zaintzeko ere eskatu dute.

LEITZA

HAURRENDAKO JARDUERAK → UZTAILAREN 4TIK 29RA

Hilaren 30ean bukatuko da udako tailerretan apuntatzeko epea

Izena emateko 012ra deitu behar da eta datuak eman

TTIPI-TTAPA

Natura, aniztasuna, artea, berdintasuna, magia, sormena, sukaldaritza, jolasak, umorea, komunikazioa, kaleaz gozatzeta, partehartzea... Horiek eta gehiago landuko dira aurtien ere uztailean egingen diren udako tailer eta haur txokoan. Haur eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoen zantza izanen da eta lau txanda izanen dira aukeran: uztailearen 4tik 8ra lehena, 11tik 15era bestea, 18tik 22ra hirugarrena eta 25tik 29ra azkena.

MATRIKULAZIOA

Izena emateko epea eta heldu den astelehena, maiatzak 30, bukatuko da. Interesatuak 012ra deitu behar dute eta datuak eman. Plazak mugatuak direnez, herritarrek eta izena emateko ordenak izanen dute lehentasuna. Informazio gehiago: Gizarte Zerbitzuetan (948 510840) edo Euskara Zerbitzuan (948 510814).

Aste batekoak, bikoak, hirukoak edo lauak saioak daude aukeran eta hiru ordu (10:00-13:00) eta lau (09:00-13:00) saioak.

SORMEN TAILERRAK

Sormensena izenarekin, arte tailer askeak ere antolatu dira uztaileko. Bat, bi, hiru edo lau aste saioak izanen dira



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguzki plakak udaletxeko terrazetan

Hemezortzi eguzki plaka jarri ditu Udalak Herriko Etxeko bi terrazetan, bederatzi alde bakoitzean. Teknologia hau Leitzaan probatzea da Udalaren asmoa, eta bertatik ateratzen diren datuak herritarrekin eta ikasleekin konpartitzea. Gainera, Unibertsitateko irakasle batek egindako ikerketaren arabera, guztiz baliagarria izan daitekeen proiektua da.



ARGAZKIAK: HITZA/J. OTXOTORENA

Haur, guraso eta eskolen topaketa

Areso, Goizueta eta Leitzaoko eskoletako neska-mutikoen eta gurasoen topaketa Leitzaan egin da aurtien. Maiatzaren 14an ederki pasatzeko aukera eduki zuten.

aukeran: uztailearen 4tik 7ra, 11tik 14ra, 18tik 21era eta 25etik 28ra. Astelehenetik ostegunera egingen dira eta egunean bi ordu eta erdikoak izanen dira. Komikia, natura, airea, haizea eta eraiki/berrreraiki landuko dituzte.

Izena emateko idatzi sormensena@gmail.com

era edo deitu 677 340685 edo 665 224269ra.

Aurrerako batzarra

Aurrera Kirol Elkarteak ez-ohiko batzarra egingen du ostiral honetan, hilak 27, Aurrerako goiko aretoan. 19:00etara egin dute lehen deialdia egingen da eta 19:15-

erako bigarrena. Kuota berriak izanen dira gai nagusia. Izan ere, 1996an onartu zen azkeneko kuoten igoera, eta hori dela eta, kontuan hartuz azken urteotan dirulaguntzak murrizten ari direla, zuzendaritzak kuoten igoera hau proposatu du: 14-17 urte bitarte-



Pertsonaia
Iñaki PERURENA

Manuel Irujo saria jasoko du ekainaren 4an

Lizarrako Irujo Etxeak ematen duen Manuel Irujo saria Iñaki Perurenarentzat izanen da aurtien «euskararen eta euskal kulturaren alde erakutsitako konpromisoa» eskertzeko. Aurtengoa sarietaren XI. edizioa izanen da eta «arlotan guztietan –kirolari, idazle, aktore, bertsolari eta gaur egun museo etnografiko baten zuzendari– euskararen alde agertu» delako aukeratu dute Perurena. Ekainaren 4an, larunbatarekin, jasoko du saria Lizarran.

koek hilabetero 4 euro ordaindu beharko lukete, 18-65 urtekoek 6 euro; 65 urtetik gorakoek 3 euro. Bazkide berria egiteagatik 10 euroko sarrera utzi beharko da eta bi senide badira 5 eurokoa. Sarrerako txartela galtzeagatik, berriz, 3 euro kobratzea proposatzen da. Beti bezala, zuzendaritza eta batzorde-tako kide, dantzari, pilotari eta futbolariak kuota erdia ordainduko dute.

BTT irteera

Mendibil Taldeak antolatuta, larunbat honetan, hilak 28, mendi bizikletaz irteera egingen da Leitzaatik Igantzira. Izenematea Astiz liburudendan, 25a baino lehen.

KULTURA → DANTZAK

Legorretako Dantzari Txiki Egunean parte hartu dute herriko gaztetxoek

Aurten bigarren aldiz joan dira dantzatzerara

Juana Mari SAIZAR

Herriko haur dantzariak aurten ere egin dute Legorretara bisita. Joan den urtean joan ziren lehen aldiz bertako Dantzari Txiki Eguna ospatzera, eta aurtengoa berriro errepikatu dute esperientzia.

Goizean indarrak hartuz hamaiketakoak egin ondoren, herriko hainbat txokotan dantzatu zituzten beraien dantzak, eta buelta egingakoan plazan talde guztiek aurreskua eta agurra dantzatu zituzten denak elkarrekin. Ondoren, eszenatokian talde bakoitzak bere dantza bat eskaini zieten bertara gerturatu ziren guztiei.

Hau bukatuta hasi zen festa, dantzari guztientzat bazkaria baitzegoen eta eguna amaitzeko Poxpolo eta konpainiaren eskutik beraien emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten.

Haur, guraso eta eskolen topaketa

Pasa den maiatzaren 14an egin zen Areso, Leitza eta Goizue-



ARGAZKIAK: ANA GOÑI

Saio polita eskaini zuten neska-mutikoeek Legorretan eta bide batez, ongi pasatzeko aukera ere eduki zuten.

tako eskolen topaketa Leitzan. Bertan izan ziren Aresoko Nazabal Eskolako haurrak ere, eta hainbat ekintzetan parte hartzeko aukera izan zuten eta tartean kantuan ere aritu ziren, arratsaldean. Bertsoak kantatuz gozatu zituzten

bazkarian zeuden guztien belarriak eta nahiz eta eguraldiak asko lagundu ez, bertaratutakoak oso ongi pasatu zuten.

Akats zuzenketa

Aurreko TTIPI-TTAPA-

ren alean akats bat egin zen jaiotzen atalean. Areson sortutako haurraren izena June Otermin Gurutxarri da.

Lerro hauen bidez, barkamenak eskatu nahi dira sortu ahal izan diren eragozpenengatik.

MUSIKA

Instituetako ikasleek kontzertuak eskainiko dituzte egun hauetan

TTIPI-TTAPA

Kontzertuak eskaintzeko elkartzen ari dira instituetako ikasleak aurten ere. Baina joan den urtean bezala, bi multzotan banatuta ari dira, sei instituturen arteko ekimena denez, sei elkarteak luzeegi joko lukeelako. Alde bateatik, **Bera**, Altsasu eta Lizarrako instituetako ikasleak biltzen ari dira. Eta bertetik, **Lekaroz**, **Doneztebe** eta **Leitzako** instituetakoak. Berako saioa maiatzaren 13an egin zuten Eztegarra frontoian eta aste honetan, Lekaroz, Doneztebe eta Leitzako txanda izanen da. Maiatzaren 25ean, asteazkena, Doneztebeko Mendaur institutuko frontoian izanen da emanaldia. Ortzegunean, maiatzak 26, Leitzako Amazabal frontoiak hartuko du ikasleen kontzertua eta ortziralean, maiatzak 27, Lekarozko institutuko kiroldegian egingen da emanaldia. Hiru saioak 17:00etan hasiko dira.

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu,
deitu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58



LEITZALDEA

GIZARTEA → 2010EAN EGINDAKO IKERKETAREN EMAITZAK

Lau herrietako gazteen aisialdia aztertu eta ondorioak jakinarazi dira

Herriz herri aurkezpenak egiten ari dira

TTIPI-TTAPA

Arano, Areso, Goizue- ta eta Leitzako gazteak pozik bizi dira, eta aisialdian aukera anitzak dituzte. Baina autoa gehiegi erabiltzen dute eta bizimodu erosogia dute. Horiexek dira lau herrietako Gazteen Aisialdiaren Hausnarketatik atera daitezkeen ikuspegi- gietako batzuk. Orain, gainera, herriz herri ikerketaren nondik norakok azaltzeko hitzaldiak egiten ari dira.

Leitzako Prebentzio- ko Batzordearen ekime- nez (Leitzako alkatea, Er- leta eskola, Amazabal institutua, Eskola eta ins- titutuko Guraso Elkarte- ak, Parrokia, Osasun Etxea eta Gizarte Zerbi- tzuak), 2010ean egin zu- en Nacho Esparza Fer- nandezek ikerketa hau Gizarte Zerbitzuen Man- komunitateak koordina- tuta. Lau herrietako gaz- teak elkarrizketatu ziren horretarako eta Leitzako Prebentzioko Batzordea- rekin eztabaidatu eta baiezatu ondotik, ondo- rioak kaleratu dira. Emait- ztan, gazteen sentimen- du eta ohiturak, datuak, ikuspegi ezkor eta bai- korrak eta kontrolatu be- harreko puntuak ageri di- ra, besteak beste.

GERTAKIZUN OBJEKTIBOAK

Ikerketaren arabera, 14-16 urteko gazteen egunerokoan ikasketak, koadrilla, bizitza seden- tarioa, teknologia berri-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Goizuetako gazteak 2010eko festetan.

en erabilera egunero eta lehenbiziko parrandak daude.

17-20 urtekoetan sexu diferentziak nabari- tu dira, etxean laguntza gutxi ematen dutela ere ikusi da, baita teknolo- gia berriak egunero era- biltzen dituztela eta pa- rranda nagusi dela ere.

21-25 adin tartean daudenak lanean edo bi- la dabilta, gurasoen etxean bizi dira (alokai- ruan gutxi daude, etxe- bizitzak garestiak direla- ko), lokala izaten dute el- kargunen nagusi eta aisial- dian garrantzi handia du parrandak.

26-30 urtekoetan, al- diz, bikote bizitzak du garrantzia eta parranda- ren intentsitatea jeitsi egi- ten dela ikusi da.

IKUSPEGI EZKORRAK

Gazteek autoa gehie- gi erabiltzen dutela on- dorioztatu da ikerketa honetan, eta horrekin ba- tera, alkohola droga so- ziala dela eta kontsumi- tzaileari ez diola etiketa jartzen. Kannabisa egu- nerokotasunean erabil-

IKERKETA

Gazteen ohiturak, datuak, alde ezkor eta baikorrak eta kontrolatu beharreko puntuak bildu dira emaitzan.

tzen dela ere ikusi da eta gazteek normalizat har- tzen dutela kontsumoa. Gazte eta nerabeek bizi- modu erosogia dutela ere antzeman da eta el- karte eta erakundeetan gero eta gutxiago parte hartzen dutela. Autokri- tikarik gabe konformis- moa ere somatu da.

IKUSPEGI BAIKORRAK

Alde baikorren arte- an, lau herrietako gazte- ak pozik bizi direla aipa- tu da eta aisialdian auke- ra anitzak dituztela: kirola, ekintza kulturalak, pa- rranda, lagunekin egon... Drogen kontsumoan, gazte gehienak arrisku- ak murriztearen aldeko- ak direla ere ikusi da.

SENTIMENDUAK, OHITURAK...

«Nortasun eta izaera propioa eraikitzeko aisial-

dia beharrezkoa da», dio ikerketak. Eta horrekin batera, asteburuetan ar- datza parranda eta el- karen arteko harrema- nak direla ondorioztatu da. Drogen kontsumo- an tolerantziaren diskur- soa presente dago, na- hi duena kontsumitzeko bakoitza libre dela uste baitute gazteek. Gizarte matxista baten arras- ritu dira, baita moderni- tateak eragiten diela ere.

KONTROLATU BEHARREKOA

Hausnarketan ageri denez, badira gazteen artean kontrolatu behar- reko zenbait puntu. Ha- la nola, teknologia ber- rriekin esperimintatzea beharrezkoa da bainasa- re sozialen erabilera mugatzen jakitea oso garrantzitsua dela nabar- mendu da, eta inoiz ez duela harreman baten ordezkia izan behar, osagarria baizik. Eta bes- tetik, autoan neurriak har- tzearen arrazoi nagusia kontrolen presentzia de- la ere ondorioztatu da.

HERRI BATETIK BESTERA

Lau herrietako gaz- teen aldeak, orokorrean ez dira hain nabarme- nak, baina badira berezi- tasun batzuk eta horieta- ko batzuk aipatu dizki- gu Teresa Martinez Giza- rte Zerbitzuetako teknika- riak: «Areso edo Arano, gazteak ez daude hain antolatutak eta gogoia eta beharren arabera anto- latzen dira. Zerbait anto- latu edo informazioaren bat pasa nahi badute, kuadrilla bakarrean el- karrekin ibiltzen direnez, momentuan egiten dute aurretik gelditu gabe». Gisa berean, herri txikie- tan partehartzea «gehia- go gutxitu» dela ere ai- patu digu.

Leitzak, berriz, haun- diagoa izaki, «aukera ge- hiago» dauzkala azaldu digu: «lokalak, elkarte gastronomikoak, Gazte- txea, Gaztetxokoa, Gaz- tetxo denda...». Gazte- en bost lokal zenbatu di- tuzte Leitzan, eta Marti- nezek argitu digunez, «berezitasun handiena gehienetan mutilak ba- karrik daudela da, ba- tean izan ezik, eta beste batean neska bat dago». Goizuetan ere aukera ba- dagoela iritzi dio: «Gazte- txea, Gaztetxokoa eta el- karte gastronomikoa du- te». Eta Areson eta Ara- non elkarte batean el- kartzan dira denak.



LANPOSTU DEIALDIA → AUKERAKETA PROZESUA

Zerbitzu anitzetako langileak hartzeko probak aste honetan hasiko dira

Hasteko, euskararen ezagutza frogatzeko probak gainditu beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Udalak hartu nahi dituen zerbitzu anitzetako bi langileak kontratatzeko probak aste honetan hasiko dira. Maiatzaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurkeztu zuen izena emandako zerrenda: 80 lagun interesatu dira eta guztiak

gizonezkoak. Apuntatu diren horietatik 77 izan dira onartuak. Beharrezko dokumentazioa ez aurkezteagatik izan dira bertze hiru baztertuak.

Aitzinera egin duten 77 horietatik 60k oinarritzko baldintza, hau da, euskararen ezagutza, frogatu beharko dute eta horretarako bi zati izanen dituen proba gainditu beharko dute: lehenbizikoa idatzia izanen da eta asteazken honetan, maiatzak 25, egitekoa da Lekarozko institutuan, 16:00etan. Lehenbiziko proba gainditzeko dute- nek bigarren zatia ere

DATUA

80

LAGUN

apuntatu dira Udalak zerbitzu anitzetako bi langile hartzeko egindako deialdian.

egin beharko dute, ahozkoa. Hau ekainaren 1ean egingen da, Baztan- gu udaletxean.

Euskara proba gainditzeko dutenek egingen dute aukeraketa proze-

suan aitzinera eta oposizioaldia egin beharko dute. Oposizialdiko lehenbiziko ariketa ekainaren 7an egingen da, 16:00etan, Elizondoko BHIIn, Elizondoko Diputazioako etorbidean.

Azterketa egitera joaten direnek nahitanahiez eraman beharko dute Nortasun Agiria.

Mintza Eguna

Aitzineko alean aipatu bezala, ekainaren 4an mintzapraktika egitasmoen bidez euskaraz solasteko biltzen diren Euskal Herriko hainbat eta hainbat lagun Elizondon

elkartuko dira. 11:00etatik aitzinera izanen dira ekitaldiak (ikus 542. alea).

Amaiur txapelkun

Goma Gaineko Lauko Sokatira txapelketen barne, hilaren 14an jokatutako gizezkoen 320 kiloko azken jardunaldia Zugaramurdi. Zortzitalderen artean, Amaiur nagusitu zen, Amaiur-Urruña taldea bigarren sailkatu zen eta Amaiurko bertzea bosgarren. Larunbatean, hilak 28, Berriozarren, gizezkoen 300 eta kadeteen 290 kiloko saioak jokatuta akitu da txapelketa.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Ikastolako ikasle eta irakasle ohien bazkaria

Baztan Ikastolaren 40. urteurreneko ekitaldien barne, ikasle eta irakasle ohiek bazkaria egin zuten maiatzaren 7an Elizondoko Antxitonea trinketean. 240 lagun elkartu ziren guztira. Bazkariaren gain, argazki zaharren erakusketa, fanfarre poteoa, bertso musikatua, akordeoia eta noski, giro eta umore ona izan ziren.

suteia
INSTALAZIOAK

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren arduraz hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

BAZTAN

UDALA → HIRIGINTZA

Bilduk eta lau alkatek gibeleratzeko eskatu arren, Udalak LOEE onartu du

Hauteskunde aitzinetik egitearen kontra azaldu dira

TIPI-TTAPA

LOEE edo Lurralde Okupatzeko Estrategia eta Eredua hauteskundeak baino lehen onartzeko asmoa iragarri zuen NaBaik, eta hala egiteko zuen maiatzaren 20ko ezohiko bilkuran.

Azken lau urteotan udal gobernua osatu duen taldea hauteskunderen egon ez zela eta, Bilduk LOEE txostenari eman beharrek hasierako onespina ondoko Udalaren eskuetan uzteko galdegin zuen. NaBaik, ordea, «legealdi osoko lana eta erronka» izan dela erranez, legealdi berria hasi aitzinetik onartzeko konpromisoa zuela erantzun zion, eta hauteskundeetako pertsonak aldatu arren, NaBaik hauteskundeetara aurkeztu zela eta beraz, «LOEE-a onartzea hasitako lanari segida ematea zela».

Hirigintzako komisio informatiboan parte hartu duten lau herrietako alkateak ere kontra azaldu ziren. Xabi Ospital (Erratzu, Baztangoiza), Xabi Torres (Elizondo), Peio Obregozo (Iurita, Herberea) eta Kiko Gar-

txitorea (Berroeta, Basaburua) izan ziren dokumentua eragile sozial eta sektore baztandarren artean eztabaidatu behar zela iritzi ziotenak, eta hauteskunde aitzinetik onartzea «ez dela egokia eta ez etikoa ere» adierazi zuten.

Bertzalde, Bilduk prentsa oharrean dioenez, txostenean egiten den populazio aurreikuspenak «ez du bilakaera demografikoa kontuan hartzen, eta horrek Baztango beharrek zerikusirik ez duen plan hedakorra ekar dezake, lurzoru desberdinak urbanizagarri sailkatuko dituen horren beharrik izan gabe, eta lurraldearen artifizialazio prozesuan sakonduko duena horren ondorio guztiekin».

NaBaik, bere aldetik, LOEE onartzeak ez dela «inolaz ere ondoko Hasiarako Hitzarmena eta UPO Udaleko Plan Orokorren edukia baldintzatzen» adierazi du eta gaineratu du, «LOEE ez onartzeak UPO bera onartzea denboran gibeleratzea ekarriko lukeela eta bi urteko epean UPO ez bada onartzen jasotako dirulaguntza bueltatu behararren arriskua dagoela».

Hasiarako onespina eman aitzinetik ziriborroa herri guztietan

eztabaidatzearen alde agertu zen Bildu eta NaBaik LOEE dokumentua herri guztietan eztabaidatu dela baieztatu du.

Bertzetik, «LOEE familia bakarrek etxeak bulkatzeko egiten duen apustua eztabaidagarria dela» uste du Bilduk, «sozialki eta lurralde aldetik ondorio haundiak dituen gaia dela iruditzen zaigu, eta eztabaida zabal eta sakona behar duena. Horren guztiaren konponbidea ez da lurra alferri erabiltzen duen eta herriguneak eta eremu soziala desegituratuko dituen hiri-garapena izaten ahal». Horrekin batera, azken urteetan lurzoru ez urbanizagarri egin diren bizitzeko gaia ere aipatu du Bilduk, «eraikuntza eredu horrek Baztango herriguneetan oinarritu beharko litzatekeen hiri-garapena desegiten duela» salatuz. Eta etxe hutsen eta bigarren bizitzeko gainean ohartarazi du, «hirigintzaren planifikazioak, gauza guztien aitzinetik errealitate hori kontuan



Baztandarren Biltzarren iragarlea

Uztailaren 17an eginen den besta haundirako bi hila bete eskas bat falta direnean, Baztandarren Biltzarrak elkarrekin beste iragarriko duen kartela aurkeztu du. Lehiaketaren irabazlea Agoitzeko Alfredo Leon Mañu da, *Luvia de Triangulos* gaiarekin aurkeztua. Aurten, bertze urtetan ez bezala, Baztandarren Biltzarrak elkarrekin erabaki du kartel sariduna. Aipatu, lehiaketan parte hartu duten lanak uztailaren 1etik 17ra ikusgai izanen direla Arizkunenea Kultur Etxean.

hartu behar duela» eta «etxe hutsen gainean eragiteko eta etxebizitzeko alokairua bulkatzeko udal ekimena beharrezkoa dela».

Horren harira, LOEE dokumentua ez dela «planaren zirriborroa» erantzun dio NaBaik: «LOEE dokumentuaren xehetasun maila ez da

inolaz ere iristen etxeen tamaina definitzera, hori Udal Plan Orokorren edukia izanen da eta plan hori udal berriak eztabaidatu, adostu eta onartuko du. Gisa berean, herrigune eta eremu sozialak definitzea eta etxe hutsen tratamendua, UPOren edukia izanen da, eta ez LOEErena».

Ba al zenekien...

Ainhoa Astiz lekaroztarrak eta Leire Ramos berroetarrak berriz ere Espainiako Eskubaloien selekzioarekin jokatu dutela? Uda guztia harat eta honat pasatuko dute.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zuzirik Asegururak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Normak eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioak, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserrit, berrak, pribu, etab... salmenta eta alkatariak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ASIALDIA → UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAK ANTOLATUTA

Udako Jostaldietan izena emateko epea ekainaren 6tik 17ra egonen da zabalik

3-12 urte artekoendako dira eta Elizondon eta Erratzun izanen dira



UTZITAKO ARGAZKIA

TTIPI-TTAPA

Baztango haurren arteko harremanak bultzatu, ingurumenarekiko jarrera positiboak sustatu, Baztango kultura eta natura ezagutu eta haurren garapen personala lantzeko helburuarekin, aurten ere Udako Jostaldiak antolatu ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak. Uztailan eta abuztuan izanen dira, eta 3-12 urte bitarteko gaztetxoendako.

Jokoak, eskulanak, tailerrak, txangoak, ki-

Udako goizak lagunartean eta giro ederrean pasatzeko aukera izanen dute aurten ere neska-mutikoeak.

rola... Horiek eta bertze hainbertze gauza landuko dituzte udako asteetan, 10:00etatik 13:00etara eginen diren saioetan.

Hiru txanda izanen dira: uztailaren 4tik

15era Elizondon izanen dira Udako Jostaldiak; uztailaren 18tik 29ra Erratzun eta abuztuaren 1etik 12ra Elizondon. Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehenetasuna bi asterako

aukeratzen dutenek izanen dute.

IZEN-EMATEA ETA PREZIOAK

Txandako 66,5 euro ordaindu beharko dira eta familia ugaria bal-

din bada edo txandan anaia-arreba bat baino gehiago baldin badaude 56,5 euro ordaindu beharko dira. Aste bakarra aukeratzekotan, berriz, 40 euro.

Izena emateko Dindaia Fundaziora deitu beharko da (948 277620), 10:00etatik 13:00etara. Ekainaren 6an irekiko da horretarako epea eta 17ra arte egonen da zabalik. Ordaintzeko azken eguna ekainaren 24a izanen da.

Aipatu, joan den urteko udako jostaldietan 77 haurrek hartu zutela parte, 51 lagunek Elizondoko txandetan eta 26k Erratzukoan. Elizondo, Erratzu, Irurita, Arizkun eta Amairuko neska-mutikoeak izan ziren jostaldietan ibili zirenak.

Udako jostaldia
Auzurten 25.liko
uztailaren eta abuztuaren
3 - 12 urte bitarteko
haur eta gaztetxoendako

HEMI GUZTIA EUSKARAZI

Jokoak, eskulanak, tailerrak (birziklatzea, buztina, antzerkia,...) txangoak, kirola...

HELPUKAK:
Baztango haurren arteko harremanak bultzatzea. Ingurugiroarekiko jarrera positiboak sustatzea. Baztango kultura eta natura ezagutzera. Haurren garapen personala lantzea.

ITXOIA:
Uztailan eta abuztuan, goizeko 10:00etatik 13:00etara

TXANDAK:
1- Uztailaren 4tik 15era | ELIZONDON (kodea E1)
2- Uztailaren 18tik 29era | ERRATZUN (kodea ER)
3- Abuztuaren 1etik 12ra | ELIZONDON (kodea E2)
(Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehenetasuna, bi aste egiten dutenek izanen dute)

PREZIOA:
66,5€: txandako | 56,5€: familia ugaria bada edo txandan anaia-arreba bat baino gehiago bada | 40€: aste bakarra

IZEN EMATEA: Telefonoz Dindaia Fundazioan
Tel.: 948 27 76 20. Ekainaren 6tik 17ra, goizeko 10:00etatik 15:00etara.
Ordainketa egon baino lehen izena emateko deitu, eta ordainketa egiterakoan haurren izena eta kodea jarri.
Kontu zk. (Nafarroako Koba, can) 2054 0104 61 9142673850.
Ordaintzeko azken eguna: ekainaren 24a.

AUKERATU BEHARRAKO:
Familia ugariaren txartela, behar izanez gero (Baleko Etxean)

BAZTAN

GIZARTEA → AFINA ELKARTEAREN ESKUTIK

Fibromialgia dutenentzat ariketa fisiko bereziekin programa lantzen hasi dira

240 lagunek dute fibromialgia Baztanen

TTIPI-TTAPA/M. OTEIZA

Oinaze orokorra eta kronikoa sortzen duen gaitza da fibromialgia, bereziki emakumezkoetan agertzen dena. Populazioaren %3k izan dezake eta Baztanen kasuan, elkarteak adierazita kalkuluen arabera, eritasun hau duten 240 lagun daude. Hain zuzen, horiei laguntza ematera dator AFINA Nafarroako Fibromialgia Elkarteak eta Udalak elkarlanean abiatu duten programa. Ariketa fisiko bereziekin bizi kalitatea hobetzea eta sintomak arintzea dira programaren helburuak eta Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean eskaintzen dute.

Dagoeneko 20 bat lagun dira ekimen honekin bat egin dutenak, eta Joakin Espinazo AFINAko lehendakariaren arabera, «patalogia hauek dituzten landa eremuetako pertsonak ez dute bertze tokietan bezalako aukerarik, eurentzako zerbitzu guttiago dago eta programa honek egoera hori arintzeko balio du».

Elkarteak duela 13 urte sortu zen eta irabazi asmorik gabe lanean ari da geroztik, gaixotasuna dutenei tailer psikologikoak, ariketa fisikoa edo elikadura terapeutikoaren inguruan laguntza emanez. Elizondon, beriz, urtebete daruma lanean eta COCEMFE ezintasun fisiko eta organikoa duten Nafarroako erakundearen egoitzan laguntza pertsonalizatua eskaintzen du, hau da, Haur Eskola zaharraren eraikinean.



ARGAZKIA: AFINA

Fibromialgia dutenak ariketa fisiko berezia egiteko programa lantzen.

Eritasun berria da fibrosia eta ezezaguna. Espinazoren irudiko, «horen arrazoi nagusia osasungintzak gaixotasuna detektatzeko ez duela probarik erabiltzen da». Hala, «gaixoak borrokatu egin behar du bere oinazeak kontuan hartuak izan daitezten eta hilabeteak pasatzen ditu espezialistetan diagnostiko egokia lortu arte».

Tapoi bilketa

Herrietako eskolak plastikozko tapoiak birziklapen kanpaina solidarioan murgilduak daude. Herrietako eskoletako Gasteizko maisu baten bidez hasi zen dena. Honek eritasun arraro bat duen –Duchenne gihar distrofia– Lekeitiko bat ezagutzen du. Eritasun honek giharrei egiten die kalte, indarra eta mugikortasuna galduz. Kata-

dera berezi bat behar zuten, baina garestiegia zenez, sosa lortzeko kanpaina bat hasi zuten. Enpresa batekin hitzarmena sinatu eta tapoi tonak bakoitzeko 200 euro lortzen dute. Kanpaina hau Euskal Herriko hainbertze tokitan zegoen martxan, baina berriki gure eskualderat ailegatu zaigu. Jendearen inplikazioa izugarria izan da, eta dagoeneko 132 kilo biltzea lortu da. Momentuz, ekainaren 30era arte bilduko dira tapoiak Irurritako eskolan, gero Gasteizko Aintzina elkarteari eramateko.

Aintzina elkarteak gihar distrofiak eta eritasun arraroak dituzten pertsonen familiek osatzen dute, eta helburua eritasun arraroen ikerketak aitzinerat egitea da, azken finean, administrazioak ez baitu dirurik

bideratzen. Norbaitek informazio gehiago nahi badu, www.aintzina.org web orrian aurkituko du.

Errugbi Txapelketa

Maiatzaren 14an jokatuko zen Lekarozen Baztango I. Zazpira Errugbi Txapelketa. Eta errugbiaren haratago, aipatzekoa da giro ederra sortu zela, 200 lagun inguru elkartu baitziren errugbi zelaiaren inguruan. Bi multzotan banatuta, sei taldek hartu zuten parte: La Unica, Nafarroa (21 urtez azpikoak) eta Baigorriak batetik, eta Baztan, Nafarroa (senior) eta Tuterako Erraldoiak bertetik. Nafarroa (seniorrak) taldeak irabazi zuen. Txapelketa zerbait nabarmentzekotan, giro ona, Baigorri-Garzikoen maila altua, baztandarren indarra eta antolakuntza ona dira.

Baldia Medikuen Plaza
31700 ELIZONDO
T. 620 693 697

Ordutegi
zabala

aidur
ileapaindegia

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

TTIPI-TTAPA2 2011 (LAGUNTZA ERATEKIN)

can
proiektu
zenbakia
15.996

ANTXITONEA
Tiketa

24 inguru biltzen diren -Auzokalekua-
Auzo giroa eta gaitasunak - Hain modukoa eta TI
Gela berrak siala eta berrak berrak

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
bostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

KIROLA ETA OSPAKIZUNAK → SARAKO URTXINTXAK ANTOLATUTA

Eskubaloiairen besta egingen da larunbat honetan zortzi

Eskubaloi xapelketaz gain, mus eta poker lehiaketa izanen dira eta gauean afaria

lehiaketak antolatuko dira. 10 euro ordaindu

beharko dira parte hartzeko.

Bertzalde, egun osoan taberna irekia izanen

da eta ogitartekoak izanen dira. Gauean afari goxo bat eskainia izanen da.

Joanes GARCIA

Heldu den ekainaren 4an, larunbatarekin, Sarako Urtxintxak eskubaloi taldeak bere besta antolatu du. Eguna herriko kiroldegian iraganen da 13:00etatik goiti. Eskubaloi xapelketa 13:00etan hasiko da. Ekipa guztietan neska bat izan beharko da derigorrez eta gehiago badira hobe. Parte hartzaile bakoitzari bi euro eskatuak zaizkie.

Ondotik, 18:00etatik landa, karta joko maitaleentzat mus eta poker



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Evening Hymns taldearen kontzertua

UsoPOP elkarteak Evening Hymns kanadiar taldearen kontzertua antolatu du ekainaren 1erako. Sarako ondarea goraiatu nahian, Ihalar auzoko Santa Katalina kaperan iraganen da. Gaualdia zintzur bustitze batekin hasiko da 19:30 aldera kaperako parkean. Bertan, elkarteko kideek agorrilaren 27an iraganen den festibaleko programazioaren berri emanen dute. Folk hirukoteak Europan barna egiten ari den birari Saran emanen dio amaiera eta huts egin ezina da.

Errugbiko xapelketa

Euskal Herriko I. Errugbi Xapelketa gure herrian iraganen da larunbat honetan, Anima niako zelaian. Sarako Izarra taldeak antolatuta, zazpi herrialdetako taldeak bilduko dituen hamabosnakako lehen xapelketa izanen da. Xehetasun gehiago aldzikari honetako kirolen atalean daude.

EMAITZAK

Basurdeek Campe ten aurkako finala 28-6 ko emaitzarekin galduta. Hala ere, Frantziako Xapelketan segitzen dute eta 21ean final hamaseirenak jokatzeakoak zituzten.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iñueta · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 448 M. 630 354 816

HERRIKO ETXENIKE
EDXENIKEIX
CAFÉ DE LA MAIRIE

T. 0559342519
Maitzen eta Wikipediaren
SARA

HARATEGIA · CARNICERIA

ETXENIKE ARATZEAK

ZAMAIL

GANADERIA PROPIA

ASTELEHENETIK ORTZEGUNERA 09:30-17:00
ORTZIRALA 09:30-14:00 / 17:00-20:00
LARUNBATA 09:00-14:00

A ZE PREZIOAK!

ARATXE AZPIZUNA	27€/K
ARATXE TXULETA	13€/K
ARATXE BIRIBILKIA	10€/K
ARATXE XERRAK	10€/K
ARATXE-ZANGARRA	7€/K
ARATXE GISATUA	6€/K
ARATXE TXURRASKOA	6€/K
ARATXEAREN	
HARAGI TXIKITUA	6€/K

Santiago, 56B - behea · 31700 ELIZONDO · Tel. 948 452 486

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun

(0034)948 63 54 58

SENPERE

EUSKARA → JAI ERRALDOIA

Azken urteetako Herri Urrats jendetsuena izan da aurtengoa

Irabaziekin
Kanboko
Xalbador
kolegioa
lagunduko dute

Franck DOLOSOR

Laku bat munduan lelopean mundua bildu zen gure lakuan maiatzaren 8an, 28garren Herri Urrats bestaren kariatarat. Aurtengoa, azken urteetako bestarik jendetsuena, iduzkitsuena eta alaiena izan zen. Euskal Herri oso milaka euskaltzaleen ondoan, Iparraldeko sentsibiltate guzietako ordezkariak bildu ziren ekitaldi ofizialean sustengua erakusteko Seaskari, Iparraldeko ikastolen federazioari. Hauen artean zen lehen aldikoz Georges Labazée Kontseilu Nagusiko president sozialista berria eta Max Brisson azken aldikoz Euskararen Erakunde Publikoko buruzagi gisa bere kargua utzi berri baitu. Dena den, Miarritzeko eskuindarrak argitu du heldu diren urteetan ere Herri Urratserat joanen dela «euskararen militante soila bezala». Ekitaldi hortan, Seaskako arduradunek Claire Haran anderea omendu eta eskertu zuten berriki ikastolei eman baitie Baiona Ttikiko San Andres plazan duen lau estaiko Hotel des Basques eraikin ezaguna.

Herri Urrats musika jaialdia baino gehiago da, euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko

eguna izan baita aurten ere, bertzeak bertze, ikastoletako ikasleek euskaraz egin ditzaten azterketak eta ez frantsesez orain bezala. Euskaltzaleak pozik daude besta arras ongi iragan baitzen eta edateko eta jateko guziaz saldu baitzituzten aski ongi. Aurtengo irabaziekin, Kanboko Xalbador kolegioa berri eta haundituko dute.

Bestak hurbiltzen ari dira

Herriko besta nagusiak ate joka ditugu ereiaroaren azken aste-buruan ospatuko direlako. Besta komitea lanean ari da burubelari, ortziral gaueko zikiroa, larunbateko dantzaldia eta kontzertuak, igande eguerdiko herritaren bazkaria eta astearteko abere primak prestatzeko. Usaian bezala, oinezkoen ibilaldiek, pilota partidek eta behar bada bertsu saio batek osatuko dute Jondoni Petriren ospakizun haundia ereiaroaren 24tik 28rat.

Lanak bururatuak aintziran

Aurten ere, Herriko Etxeak lanak egin behar izan ditu aintzirako baraderan. 2007ko maiatzaren 4ko uholdearen ondotik, Frantziako Gobernuako zerbitzuek hurbiletik zaintzen dituzte bazterrak segurtasuna hobetzeko. Aintzira husteko hodiak eta baraderaren gainetik pasa daitekeen ura atxi-



FRANCK DOLOSOR

Hurbildu ziren euskaltzaleek bestaz eta jai giroaz gozatzeko aukera izan zuten.



FRANCK DOLOSOR

Jende andana konfirmazioan

Maiatzaren 15ean, eliza tanpez betea zen Azkaine, Sara eta Senpereko 13 urteko haurrek konfirmazioa egin bazuten. Elizkizunaren ondotik, bakoitzak besta ederra egin ahal izan zuen lagun eta familiarekin.

kitzeko hormak berri dituzte duela guti. Herriak 172 836 euro pagatu behar izan ditu eta orain diru laguntzak eskatuko dizkie Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari eta Europako Batasunari.

Ihiztarien biltzarra

Acca Senpereko ihiztariak elkarteko bil-

tzar nagusia ereiaroaren 5ean, igandearrekin, ospatuko da herriko ihiztarien etxolan. Bil-

kuran, elkartearen gorabeherak aipatuko dituzte bai eta heldu diren egunetako xedeak ere.



SORTZEAK

Aiert Arotzena Portu, Lesakakoa, maiatzaren 6an.

Elorri Arotzena Portu, Lesakakoa, maiatzaren 6an.

Eñaut Cueto Ansa, Aranokoa, maiatzaren 13an.

Jon Lazkanotegi Sansiñena, Berakoa, maiatzaren 4an.

Yue Zabaleta Gartzia, Leitzakoa, apirilaren 16an.

Aritz Agesta Perurena, Urdazubikoa, maiatzaren 10ean.

Peio Mariezkurrena Erregerena, Iturengoa, maiatzaren 5ean.

Ekaitz Sein Ariztegi, Iturengoa, maiatzaren 10ean.

Urko Mitxelena Gonzalez, Lesakakoa, maiatzaren 8an.

Xuban Igoa Almandoz, Lesakakoa, maiatzaren 10ean.

Malen Indabere Sanzberro, Etxalarakoa, maiatzaren 9an.

Mattin Diego Ernesto Lorente Ortiz, Sarakoa, maiatzaren 5ean.

Garazi Iriarte Plaza, Berakoa, maiatzaren 19an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

Igor Arruabarrena Rezola eta **Haizea Destribats Yañez**, Sunbillakoak, maiatzaren 14an Sunbillan.

Iban Zubieta Inda eta **Maitane Gartzia Telletxea**, Berakoak, maiatzaren 14an, Igantzin.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Migel Erasun Mindegia, Aurtizkoa, maiatzaren 5ean, 89 urte.

Jose Francisco Alvarez Arrieta, Are-sokoa, maiatzaren 8an, 91 urte.

Juan Mari Mihura Sanzberro, Lekarozkoa, maiatzaren 16an, 57 urte.

Agustin Antxordoki Irigoien, Berri-zaungoa, maiatzaren 15ean, 96 urte.

Milagros Palomo de la Vallina, Elbetekoa, maiatzaren 17an, 90 urte.

Victoria Castejon Labari, Berakoa, maiatzaren 17an, 80 urte.



Dionisio SAGASETA SAGASETA

I. URTEURRENA

Narbarten, 2010eko ekainaren 12an

Argi bat itzali da hemen Lurrean berri bat piztu da han Zeru Ederrean gure oroimenean izanen zara betiko ez agurrik ez adiorik gero arte baizik.

ZURE FAMILIA

Bere urteurreneko meza ekainaren 12an egingen da Narbarteko elizan, 11:00etan.



Lorentxo ZELAIETA ARIZTEGI

Oizen, apirilaren 30ean, 45 urte zituela

Udakkeneko usoen antzera joan zara eta gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE FAMILIA

Une gogor hauetan gurekin egon zareten guztiei bihotzez eskerrak: Doneztebeko mediku eta erizain Manu, Laura, Irene eta Arantxari, Oizko kuadrillari, Lanzibiri, Jaime eta Jabierri, Sebastian eta familiari, Juan Ignacio eta Ainhoari, Donamariako lagunei, Doneztebeko eskolari...

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

ERRUGBIA → LEHEN ALDIZ SARAKO IZARRA TALDEAK ANTOLATUTA

Euskal Herriko zazpi herrialdeetako taldeak bilduko ditu Sarako txapelketak

Biltzen diren etekinak Seaskako Integrazio Batzordearentzat izanen dira

TIPI-TTAPA | SARA

Dena prest dago Saran larunbaterako. Euskal Herriko zazpi herrialdeetatik etorriko diren errugbilariak hartzeko azken ukituak ematen ariko dira honezkerok, Sarako Izarra errugbi taldeak antolatuta duen lehenbiziko Euskal Herriko Errugbi Txapelketa ongi joan dadin. Sarako Animainea errugbi zelaian jokatu da eta zortzi talde ariko dira lehen, herrialde bakoitzetik bat eta horrekin batera talde antolatzailerak edo etxeko taldea ere bai: Bizkaitik Getxo, Arabatik Gaztedi, Gipuzkoatik Hernani, Lapurditik Azkaine, Nafarroatik Baztan, Nafarroa Behereatik Donapaleu, Zuberotik Mendikota eta antolatzailerak lanetan ari den Sarako Izarra taldeak jokatu dute.

HELBURU BIKOITZA

Errugbiaren eguna antolatzeko asmoa «aspalditik» zuten Saran. Halaxe baieztatu digu Patxi Jauregi Sarako Izarra taldeko lehendakariak: «ideia duela urte bat ukan genuen eta hamar hilabete dira burubelari lanean ari gara. Taldeekin lehen hartuemanak hasi genituen eta parean ukan



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sarako Izarra errugbi taldeko jokalariek.

ditugun erantzun baikorrak ikusirik ez genuen gehiago atzera egitekorrak». Azaldu digunez, «pixkanaka eta naturaltasun osoz, Euskal Herriko txapelketa baten antolatzearen ideia sortu zen, baita Seaskako Integrazio Batzordea proiektuan txertatzea ere».

Izan ere, txapelketa arrunt batetik haratago, Euskal Herriko zazpi lurraldeak bildu nahi izan dira errugbiaren inguruan. Orain arte inoiz ez da horrelakorik egin, ez behintzat hamabosnakako errugbian. Gisa honetara, taldeen arteko ezagutza sakondu nahi da, Euskal Herri osoan errugbi talde aunitz daudela erakutsi, gizonezkoetan zein emakumezkoetan.

Errugbitik haratago, txapelketak helburu duina izanen du: aterako diren etekinak Seaskako Integrazio Batzordearentzat izanen baitira, Ipar Euskal Herriko Ikastoletan urritasunak dituzten haurren integrazioa hobetzeko lanean ari den batzordearentzat, hain zuzen. Izan

ASPALDIKO ASMOA

«Errugbiari buruzko egun bat aspalditik antolatu nahi ginuen Saran. Pixkanaka eta naturaltasun osoz, Euskal Herriko txapelketa baten antolatzearen ideia sortu zen, baita Integrazio Batzordea proiektuan txertatzea ere»

Patxi JAUREGI

Sarako Izarra taldeko lehendakaria

ere, Frantziako Hezkuntza Nazionalak ez baititu bere gain hartzen ikasle horiek beharrezkoak dituzten laguntza guztiak. Hortaz, Sarako Izarra taldea izan zen Sarako Olhain Ikastolako arduradunengana jo zuena: «lankidetzan aritzea proposatu diegu, gu baino behar handiagoarekin eta beharrezkoa den elkarte bat laguntzen ahal badugu, egiten dugu», dio Jau-regik.

Eta bide batez, euskal besta bat sustatu nahi da errugbiaren inguruan. Hori dela eta,

argi utzi nahi izan dute talde guztiek parte hartuko luketen txapelketa bat antolatzeari ezinezkoa zaiela, bertzeak bertze, azpiegitura eta egutegi arazoengatik, baina denak gonbidatu nahi ditu euskal errugbiaren besta honetara.

EGUN OSOKO BESTA

Txapelketa 10:00etan hasiko da eta 19:00etan bukatu. Taldeak lauko bi multzotan banatuko dira elkarren artean ligaxka bat jokatzeko. Multzoko lehenbiziko biek finalerdiak jokatu dituzte, eta ondorengo finalak. Gainerako taldeek sailkapen orokorra finkatzeko partidak jokatu dituzte. Epailen lanetan, bertzelako, Landak eta Euskal Kostaldeko Komiteko epaileak ariko dira. Partidak 25 minutuak izanen dira.

Giroa alaitzeko bertzelako ekintzak ere izanen dira. Hala, partidak jokatzeko ari diren bitartean, Kuxkuxtu txaranga alaituko ditu. Arratsean, 500 lagunentzako zikiro jatea ere antolatu da eta on-

dotik kontzertuak izanen dira Xutik taldearekin eta DJ Balporesekin. Egun osoan txosna bat ere izanen da, baita ogitarakoak erosteko ostalua ere.

ETORKIZUNERA BEGIRA

Euskal Herri mailan horrelako zerbait antolatzen den lehenbiziko ekimena izanen da Saran larunbatean eginen da. Etorkizunera begira, txapelketak segida izanen duen ala ez erraiteko «sobera goiz» dela erantzun digu Sarako Izarrako lehendakariak, «baina aurtengo garaileak ondoko urtean haren herria antolatuko duela zergatik ez dugu pentsatuko? Baina beti errugbiaren kanpo beharren diren elkartek buruan atxikiz». Momentuz, etorriko diren talde eta laguntzailerak «bihotzez» eskerrak eman nahi izan dizkiete Saratik: «Eta gainera, denak gonbidatu dituzte: «ea meteoak gurekin ukaten dugun. Baina segurua izango da egun zoragarri bat biziko dugula».

MENDIA → MAIATZAREN 29AN


Elizondon hasi eta akituko da Baztango XVIII. mendi itzulia

38 kilometroko ibilbidea izanen da eta bataz bertze zortzi orduko bidea

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Elizondori egokitu zaio Baztango XVIII. mendi itzulia hartzea. Igande honetan, maiatzak 29, izanen da eta 38 kilometroko luzera duen itzulia egin beharko dute mendizaleek.

07:00etatik 07:30era bitartean abiatuko da Elizondoko Baztandarren Biltzarraren egoitzatik, 10 euro ordainduta. Izena aitzinetik emateko



Baztango XVIII. mendi itzuliaren ibilbidea.

ARGAZKIA: BAZTANGO MENDIGOIZALEAK

www.mendizmendi.com web orrian egin daiteke maiatzaren 27a baino lehen. Baina itzuliaren egu-

nean, 06:15etik aitzinera ere egiten ahalko da Baztandarren Biltzarra Elkartearen egoitzan.

Irteera 188 metrotan dago eta ibilbideko punturik altuena Loilurze (1.208 metro) izanen da.

Elizondotik abiatuta, hauek izanen dira ibilbidean igaroko diren leku-rikapagarrienak: Gartzain (300 metro), Meaka (500 metro), Gartzipote (345 metro), Xaguxelai (794 metro), Egurtegi (1.188 metro), Argasiaga (987 metro), Loilurze (1.208 metro), Azaldegi (973 metro), Urballo (950 metro) eta Elizondo (188 metro).

Hiru kontrol puntu izanen dira, Gartzipoten lehendabizikoa (11. kilometroa), Argasiagan bigarrena (17. kilometroa) eta Urballon hirugarrena (29. kilometroa).

Bataz Bertze zortzi orduko ibilbidea izanen da.

ERRUGBIA → HONDARTZAKO TXAPELKETA

Zilarrezko Kopa eskuratu du Baztan Errugbi Taldeak Mallorcan

Urrezko Kopa ere guttigatik ez du lortu talde baztandarrak

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Joan den urtean bezala, Zilarrezko Kopa eskuratu itzuli dira etxera Baztan Errugbi Taldekoak Mallorcatik. Maiatz hasieran 18 taldekide joan ziren harat, Nazioarteko Hondar-

tzako Errugbi Txapelketa jokatzera eta hainbat herrialdeetako 24 talderekin lehiatu behar izan zuten: Ingalaterra, Gales, Irlanda, Alemania, Herbehereak, Katalunia, Balear Uharteak... Lau multzotan banatuta aritu ziren taldeak, tartean Baztango taldearen izenean bi.

Lehendabiziko multzoan Baztan Errugbi Taldea A aritu zen eta sei talderen artean,



Mallorcara joan ziren BRTko jokalariek.

UTZITAKO ARGAZKIA

hirugarren sailkatu zen. Eta horrekin, multzoko hirugarren eta laugarrenen artean jokatzen den Zilarrezko Koparako txartela eskuratu zuten.

BRT B taldea, berriz, multzoko lehendabizikoa sailkatu zen, lau partida irabazi eta bos-

garrena berdindu ondotik. Sailkapen horrek Urrezko Koparako lehian sartzeko aukera eman zion. Finalean, ordea, BRT B taldeak ezin izan zuen garaipenik lortu Veseyans RFC talde ingelesaren kontra. Zilarrezko Kopako fina-

lean, bertzalde, BRT taldeak irabazi egin zuen Old Partneronians talde ingelesaren kontra eta horrela lortu zuen Zilarrezko Kopa.

Torneoko txapeliduna, berriz, Olarun Flamingoes Galeseko taldea izan zen.

maiatzak 26- ekainak 8

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Musika**

BERA | 2011.06.05

Lesakako bandak kontzertu didaktikoa emanen du

Bortzirietako Haur Hezkuntzako neska-mutikoentzat kontzertu didaktiko berezia prestatu dute, Franco Cesarini konpositore italiarraren lanean oinarrituz.

Mendi ibilaldia

ELIZONDO | 2011.05.29

Baztango Mendi Ibilaldia igandean

Elizondon hasi eta bide hau egin beharko dute: Gartzaín, Gartzipot, Xaguxelai, Artesiaga, Loilurze, Azaldegi, Urballo eta berriz buelta Elizondora.

Ospakizunak

OIZ | 2011.05.28

Lehenengo Laxoa Eguna larunbatean

Txapelketako Laxoa partida ofizial bat komentatua izanen da plazan. Ondotik, Laxoari buruzko erakusketa zabalduko da. Merendua ere izanen da.

Maiatzaren 29ra arte
Santiago Jorge margo-lariaren erakusketa Bertizko Jauregian.

Hitzaldiak

LEITZA

Sagardo dastaketari buruzko hitzaldia
Ekainaren 10ean Aurrera elkartean 19:00etan.

Ikastaroak

SUNBILLA

Informatika ikastaroa

Ekainaren 6tik 17ra
Lehen Hezkuntzako 3,4,5 eta 6. mailako ikasleei zuzendua. 15:00etatik 16:30era.

Kontzertuak

AURTITZ

Mendaur Trikitixa Eskolako emanaldia Aurtitzen

Ekainaren 6an,
17:30ean.

ELIZONDO

Koma taldea Lurren

Ekainaren 11n
Komaren kontzertua, 00:30etik aitzinera.

Joseina Etxeberria Lurren

Ekainaren 18an
01:00etatik aitzina DJ lanetan ariko da.

LEITZA

Kerobia Zineman

Maiatzaren 27an
epilogo formatuko kontzertua, 23:00etan.

Hidro eta Vomitoren kontzertua Gaztetxean

Maiatzaren 28an
Gazte Egunaren barne kontzertua 23:00etan Atekabeltzen.

BERA

Gose talde

Ekainaren 4an, Kultur Etxean izanen da 22:00etan.

Lesakako Musika Bandaren kontzertua

Ekainaren 5ean,
Kultur Etxean izanen da 19:00etan.

LESAKA

Lesakako Soinularien kontzertua

Ekainaren 10ean,
Lesakako Alhondigan 20:00etan.

Musika Bandaren kontzertua

Ekainaren 20an,
Alhondigan 18:00etan.

URDAZUBI

Aizkor Erauntsia, Ufestuek, Ze Esatek!

Ekainaren 3an
Urdazubiko plazan, 23:00etatik aitzinera.

ZUBIETA

Agorreta Musika Eskolaren emanaldia

Ekainaren 7an,
arratsaldean.

Ikuskizunak

BAIGORRI

Ortzaitzeko ikastolaren alde

Maiatzaren 28an,
Hiriburuko Leinua dantza taldeak *Sakratua* ikusgarria eskainiko du, 21:00etan elizan.

Erakusketak

ELIZONDO

Argazki erakusketa

Maiatzaren 30era arte *Compartir Navarra GKE Adreiluz adreilu, euroz euro* erakusketa Arizkunenean.

BERTIZ

Margo erakusketa

PROPOSAMENA

ETXALAR

XIX. Gasnaren eta artisauen feria

Ekainaren 5ean ospatuko da. Gasna eta artisauak protagonista izanen dira baina ekitaldiz bete dute eguna. Trikitilariak, dantzariak eta herri bazakaria berteak berte. Goizean argazki erakusketa izanen da elizako arkupetan eta haurrentzako bitxigintza tailerrak plazan. Andremerikoen eskulanak ere ikusgai izanen dira Kultur Etxean.

**Bertsoak**

URDAZUBI

Bertso triki poteoa

Ekainaren 3an Andoni Egaña eta Iker Zubeldiarekin. 18:00etan. Ondoren afaria sagardotegian.

Antzerkiak

LESAKA

Irain ikastetxeoen antzerki emanaldia

Ekainaren 3an 6. mailako antzerki emanaldia izanen da gimnasioan 11:30ean eta 20:30ean.

Ospakizunak

ETXALAR

XIX. Gasna eta Artisauen feria

Ekainaren 5ean ospatuko da. 10:30etik aitzinera plazan.

LEITZA

XXXIV. Artisau azoka

Maiatzaren 29an ospatuko da. 11:00etatik aurrera plazan.

Gazte Eguna

Maiatzaren 28an ospatuko da. 14:00etan

bazkaria, 18:00etan kalejira, 19:00etan malabareak, 20:00etan batukada, 23:00etan kontzertuak Gaztetxean.

III. Sagardo Eguna

Ekainaren 11n

19:00etatik aurrera Leitzako plazan.

LESAKA

Haurren eguna

Maiatzaren 29an ospatuko da, 10:30etik aitzinera. Puzgarriak, jokoak eta musika.

OIZ

Laxoa eguna

Maiatzaren 28an ospatuko da. 17:00etatik aitzinera izanen dira partidak. Musika eta merendua ere izanen dira.

Mendi irteerak

ARANTZA

Mendi irteera Goizuetara

Maiatzaren 28an

Ondotik, bazkaria egiten da Umore Ona elkartean.

BAZTAN

Baztango Mendi Ibilaldia

Maiatzaren 29an

Elizondo- Gartzain-Meaka-Gartzipot-Xaguxelai-Artesiaga-Loilurze-Azaldegi-Urbaillo-Elizondo (09:00etan).

LESAKA

Beti Gaztek Santiago Bideko bigarren etapa

Ekainaren 5ean

Zuraide-Elizondo etapa egiten du Beti Gazteko mendi taldeak.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Garabi suizidaren amodioak

JEREMIAS ERRO

Pamiela, 2011

Jon Konda ezkondu berria da Parisen ezagutu zuen Errusiako opera-kantari ospetsu batekin, eta Iruñeko La Perla hotelean hartu dute ostatu lehendabiziko gau hori pasatzeko. Batean, maitasunezko ohatzetik jaikiarazten dute, suizida bat Iruñeko Gaztelu Plazako aparkalekua eraikitzeke paratu duten garabira igo baita. Suizidak joko literario makabro bat proposatzen dio Jon Kondari. Poema batzuk irakurriko dizkio eta norenak ote diren asmatu ezean, bere buruaz beste egiten du suizidak. Jon Kondak gaua luzatu nahi izanene du, Sherezade suizidari ziria sartu nahian. Inprobisatu beharra dauka, garabitik hirira begira. Suizida liburuzain ikasia da eta Jon Kondaren marro kaskarrak harrapatzen ditu, 1992ko Nafarroako Vianako Printze sarirako hautagaia izan baitzen.

Musika



Mafia

OMERTA

Estoldetan, 2011

Mafia taldea Berrizen sortu zen 2008. urtean Eneko Urzelai (bateria), Gabriel de la Rosa (ahotsa) Iñaki Elortza (guitarra) eta Iñaki Etxezarraga *Etxe* (baxua) elkartu zirenean. Musikari bakoitzak bere proiektuak zeuzkaten baina beraien ideia eta gustuak beste talde paralelo batean elkartu nahi izan zituzten. Horrela kantuak sortzen hasi eta zuzenekoak ematen hasi ziren. Zuzenekoan artean aipatzekoa da hainbat lehiaketetan onenen artean izan direla. Aldapa Musika lehiaketan bigarren saria jaso zuten, Volcom bandjoust 2009an ere bigarren sailkatu ziren Madrilgo finalean eta urte horretan bertan Villa de Bilbaoko finalista izatera iritsi ziren. Rock doinu gogor eta landuak. Amerikar ikutu handia dute gitarren riffek eta landutako melodiekin asko aberasten dira kantuak.

Internet



Gurasoen atari berria

WWW.GURASO.COM

Garaiotako gurasoek bizi duten gurasoen egitasmo eta ondorio da www.guraso.com. Txus Arrieta Barinagarrementeriaen ideia originaletik abiatuta. Amatasuna eta aitatasuna egungo gizarte berdina gora ekartzeko saioa da. Gisa aunitzetako arazoak topatuko dituzte guraso berriek seme-alaben hazkuntzan, gizartean dagoen estresak ez baitu uzten haurrei xamurtasuna erakusten. Gaur egungo guraso eta gurasogaiek duten informazio egarria asetzeko asmoz sortu da web orrialde hau. Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Txatxilipurdi elkarteak sortutako ekimen honekin baliabide egoikiak bilduko dituen webgunea sortzea izan da apustua. Denentzat baliagarri izan daitezkeen atal desberdinekin: guraso eskola, aisialdia, seme-alabak, guraso berriak...

Nire aukera



Montxo BLANCO
Urdazubiko Montxo ostatua

«Australiara joanen nintzateke denbora izanen banu»

Ostatuko lana lotua izaten da eta denbora libre gutti uzten dio Montxori «baina libre dudan denbora guztia ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzen naiz». Tabernari lana gustatzen zaiolako afizio moduan definitzen du. Baina lana ez den bertze afizioen artean benetan maite dituenak dira ehiza eta arrantza. «Denboraldia hasten denean ahal dudan guztietan joaten naiz ehizara». Zinemara, mendira eta hondartzara joan zalea da. Futbola ere gustuko du eta Osasuna du bihotzeko taldea. Irakurtzeko tarterik ez eta oporrak aprobetxatzen ditu horretarako. Iaz Cadizen izan zen eta aurten ere hondartzarako bidea hartuko du «Menorcarra joanen naiz». Gusto-ra bisitatuko lukeen leku baten inguruan galdetuta «Australiara joanen nintzateke denbora izanen banu». Musean aritzea ere gustatzen zaio, «zaletasuna dudalako antolatzen ditut bezeroentzat txapelketak» eta azarorako Mus Azkarra Txapelketa Handia antolatzen ari da.

ETXEBIZITZAK
salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ETXALAR. Lizaietako parajea zaharberritzeko den borda salgai. ☎661 121540.

DONEZTEBE. Ogiberri gainean pisua salgai. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, 26 m²ko terraza eta trastelekua. Dena hegoaldera. ☎656 770373.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Zazpigarutze plazan 115 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreinatua gabea. ☎630 948271.

ELIZONDO. Paularen apartamentua salgai. Guztiz ekipatua eta dena kanpora eta hegoaldera begira. 2 logela, sukaldia, bainugela, egongela eta trastelekua. ☎639 003860.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

IRUÑEA. Milagrosa auzoan ikasleentzako pisua errentan emateko. 3 logela ditu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondoan dago. 680 euro hilabetean. ☎626 938312.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

ELIZONDO edo **ELBETE.** Bikote batek pisu tiki bat errentan hartu nahi du, logela bat edo bikoa bada hobe. ☎696 110929.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan eman

LESKA. Eltzeta plazan lurrazpiko garaje itxia errentan emateko. ☎618 962937.

ZERBITZUAK
denetarik

BORDA ISOLAMENDUAK
Termikoak | Akustikoak
Suaren kontrolkoak

Pedak lanak: Eraberritzeak
Erokitas - Industrieriak
Dekontaminazio - Sobai moduleriak

Tel. 948 637 540 • M. 609 477 377
IZAMA • borbda@borbda.com

LURRAK
salgai

BERA. Alkaiagan 964 m²ko lur eremu urbanizatua salgai. ☎948 630546.

**LANA**
eskaintzak

OIZ. Jatetxe batean fregaderan lan egiteko langilea behar da igande eta jaiegunetan. ☎948 451951.

Gas Natural y Union Fenosako kolaboratzaileak enpresa ertain eta tikietan aritzeko **komertzial autonomoa** behar du. In-

teresatuek jarri harremanetan: rrhh.candidatos@yahoo.com edo 696 278130.

ZUGARRAMURDI. Uztailean eta abuztuan ostalaritzan lanean aritzeko neska edo mutila behar da. Euskara eta gaztelaniaz jakitea nahitaezkoak dira eta frantsesez jakinez gero, hobe. ☎675 7114988.

LANA
eskariak

LEITZA ETA INGURUKO HERRIETAN. Neska euskaldun batek haurrak eta adinekoak zainduko lituzke. ☎695 716894.

MOTORRA
salerosketak

Derby cross city motorra salgai. 125 c.c. 2009ko urrikoa. 11.000 kilometro. Etxearen ga-

rantia urrira bitarte. Transmisio kit berria, tubo eskape berria eta gurpilak erdiberriak. Prezioa: 1.400 euro. ☎653 087191.



Suzuki Bandit 650 GSF N Abs-ekin salgai. 2007ko ekain bukaerakoa. Egoera onean eta oso ondo zaindua, garajea jasoa. Erosleak berrestrenatuko luke, lehen eskukoa erosi eta ez baita asko erabilia. 9.830 kilometro. Berrikuspen guztiak egunean. Osagarriak: Led keinukari txikiak, matrikula eramaila, atzeko lohi-babesa, erradiadore estalkia, erortze topeak, Rizoma eskulekuak. Salneurria: 4.700 euro negoziagarriak. ☎687 570079 edo mrmblogs@gmail.com



Toyota Land Cruiser 90 Vx 2000. urtekoa salgai, 142.000 kilometro egiazkoak. Pintura originala eta oso egoera onean. Trakzio permanentea, er-

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(maiatzaren 5tik 13ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 35,00 € (-1,00)

Zerri gizena
1,295 € kilo. (+0,013)

Zerramak:
0,500€ Kg/bizirik. (+0,013)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,07 (=)
1.koa 3,77 (=)
2.koa 3,53 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,15 (=)
1.koa 3,87 (=)
2.koa 3,73 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,85/2,95
Zaldi-behorrak: 1,75/1,95
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,50/6,20
8-10 kilokoak: 4,60/4,90

diko diferentziala eta atzeko diferentziala blokeagarriak... Interesatueko deitu lasai eta probatzenko geldi gaitzake. Mekanikari baten aurrean ikusteko ez dago batere arazorik. ☎647 705834.


MOTORRA
tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK
oparitzeko

Setter eta Euskal Herriko artzain zakurraren arteko nahasketaren **3 zakurkume** oparitzeko. Hilabete batekoak. ☎653 019599.



3 zakurkume oparitzeko. Euskal artizakurrak, hilabete batekoak. ☎948 510224.

Arratoi zakurrak oparitzeko. ☎948 580231.

ANIMALIAK
salgai

Border Collie arrazako lau zakurkume salgai. ☎667 505730.

Oilagorretarako zakurkumeak salgai. Atta setter eta hispanielen gurtzaketa eta ama setterra. Biak arras ehiztari onak. Ar bakoitzak 160 euro eta eme bakarrak 180 euro. ☎686 730516.



LEITZA. Golden eta Labradorren arteko zakurkumeak salgai. 180 eta 200 euro artean. ☎616 647150/636 677933.



Oilagorretarako hiru **zakurkume** eme salgai. Ama setterra eta aita spaniel arrazakoa. ☎678 024636.

Poney beltza salgai. Ile ederra lepo gainean eta

isatsean. ☎948 637327.
4 urteko **behor arabiarra** salgai, raid lasterketetan ibiltzen den Anduri zaldiaren kumea. ☎628 538652.

ANIMALIAK
erosi

Bertako arrazakoa den ardi **zakurkumea** erosi edo hartuko nuke. ☎646 961374.

DENETARIK
salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 /699 461394.

90 zentimetroko **habiohea** salgai. Egurrezkoa, txuri kolorekoa eta koltxoiarekin. ☎948 451787.

Legmagic gimnasia aparatua salgai, 75 eurotan. ☎619 913375.

Yamaha bajua eta Amp-peg AP-15 amplia salgai. Flight case fundarekin biak. ☎685 633195.



SANTESTEBAN Tailerrak


MEGANE ERROTEN 1.500 CV 2011koa - Km 0
KANGOO 1.800 CV 17.000 km - 2008koa
KANGOO ITZIA 1.500 CV 41.000 km - 2008koa

ETA GAINERA
 Seat Ibiza 1.9 TDI 90 CV
 Suzuki Waza 1.6
 Scenic RXi 1.9 D 100 CV
 Peugeot 206 2.0 HDI 90 CV
 Citroen Saxo 1.5 D 40 CV
 Hyundai Coupé 1.6 105 CV

DAVIA DUSTER LAUREATE 1.4 D 115 CV 2011koa - Km 0

DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK

Masaje-siloia salgai. ☎633 045524.



Gitarra akustikoa salgai, CORT MR 100F NS



markakoa. 250 euro. Ia berria, erabili gabe. ☎617 947865.

HP 920 C inprimagailua salgai. Egoera onean. 30 eurotan. ☎619 913375.

Akazia piketeak salgai. ☎616 055371.

BAZTAN. Etxe sarrerarako haritzeko ate mazioa salgai. ☎679 228189.



ttipi-ttapa egin zaitez harpidedun!

Bete txartel honetan zure datuak eta bidali gure helbidera: TTIPI-TTAPA | Anduetzeta, 12 | 31760 ETXALAR

URTEKO HARPIDETZA:

Baztan, Urdazubi eta Malerreka 31€
 Leitza 15€
 Hego Euskal Herria 37€
 Ipar Euskal Herria 55€
 Europa 55€
 Amerika eta Australia 123€

Izen-Deiturak.....
 Helbidea..... Herria.....
 Telefonoa..... e-posta.....
 Karneta
 Bankua

informazio gehiago: (0034) 948 63 54 56 - info@ttipi.net - www.ttipi.net

REMEMBER BESTA

MAIATZAK
28
LARUNBATA

01:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

ESKATU
ZURE
KAMISETA

KOMA

EKAINAK
11
LARUNBATA

00:30 15€ Aurretik 18€ Bertan

JOSEINA ETXE BERRIA

EKAINAK
18
LARUNBATA

01:00 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

LAISTER ARTE!!



garagardalegia

MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...
OSTIRAL, LARUNBATA ETA JAIEGUNEKO BEZPERETAN IREKIA
KONTSUMIZIOAK: TEL. 948581883



Lur

WWW.LURELIZONDO.COM

BATBIRAL:4U

EUSKAL KULTURAREN NAFARROAKO ZIRKUITUA

GOSE

Bera

Ekainaren 4an, larunbata 22:00etan
KULTUR ETXEAN



**BAGINAREN
BAKARRIZKETAK**

Leitza

Maiatzak 21, larunbata 20:00etan
ZINEMAN

SORKUN

Etxarri Aranatz

Ekainak 3, ostirala 22:00etan
KULTUR ETXEAN



RUPER

ORDORIKA

Agoitz

Ekainak 12, igandea 19:00etan
KULTUR ETXEAN



Antolatzaileak:

Babesleak:



topagunea
euskaraz elkarrekin
federazioa



Laguntzaileak:

nabarreraia.com

guaixe.net

ttipi-ttapa

Karrape



Fondo Europeo de Desarrollo rural. Europa inbertituz en zonas rurales.
Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa. Europa landa eremuetan inbertitzen.



Nafarroako Gobernua
Landa Garapenerako
eta Ingurumeneko
Departamentua

Noticias

Zer jakun, hura izan

berria



xalobatelehista

